



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

38 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- “Iparraldeko Autobiako kitapena” izenekoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (25. or.).
- Tuterako Osasun Barrutiko mantenimendu orokorreko kontratuaren burutzearen gaineko fiskalizazio txostena (1995-1996), Kontuen Ganbarak egina (28. or.).

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **“Iparraldeko Autobiako kitapena” izenekoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako “Iparraldeko Autobiako kitapena” izenekoari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila egintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko otsailaren 18a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **“Iparraldeko Autobiako kitapena” izenekoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Araubide juridiko aplikagarria (3. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (4. or.).
- V. Kostuen laburpen orokorra (7. or.).
- VI. Proiektuak (8. or.).
- VII. Desjabetzeak eta kalteordainak (8. or.).
- VIII. Obra (9. or.).
  - VIII.1. Obra berria (9. or.).
  - VIII.2. Obra nagusiaren aldaketak (11. or.).
  - VIII.3. Obraren desbiderapen ekonomikoa-ren azterketa (17. or.).
- IX. Obra osagarria (19. or.).
- X. Zerbitzuen berrezarpena (19. or.).
- XI. Laguntza teknikoa (20. or.).
- XII. Segurtasun gastuak (22. or.).
- XIII. Obren ingurugiro-eraginaren jarraipena (23. or.).
- XIV. Gorabeherak eta ondorengo gastuak (23. or.).

**Eraskina.** Aurkibide kronologikoa. Kontuen Ganbarak aurreko txostena jaulki duenetik aurrera Leitzarango autobian gertatu diren enen laburpena. (24. or.).

#### **I. SARRERA.**

Kontuen Ganbarak, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaleen Batzarraren 1992ko ekainaren 24ko eskakizuna aintzat hartuz, Irurtzun-Andoain (Iparraldeko Autobia) autobiari buruzko obren fiskalizazio-txostena prestatzeari ekin zion.

1993ko ekainaren 25ean argitaratu zen txosten hori, Nafarroako Parlamentuko 29 zk.ko Aldizkarian.

Txostena igorri zen egunean, obrak egiten ari ziren oraindik eta autobiako gastu-kopuruak 1992ko abenduaren 31koak ziren.

Egun horren ondoren obrek aurrera egin zuten bukatu diren arte, eta gastu berriak sortu dira.

Txosten honek aurreko lana borobiltzeko beharri erantzuten dio, eta obra bukatu den arte izan diren gastu guztiak bildu beharri, baita aurreko txosteneko eragiketen mozketak egunetik aurrera izan diren legezko kontuak eta bestelako gorabeherak nolakoak izan diren azaltzeari ere.

Oroitu behar da autobia hau, lehen aurrekariak 1969 urtean dauzkana, 1989-1991 inbertsio plan orokorrean sartu zela azkenik, 1/1989 Foru Legea zela bide, 28 kilometroko trazadura duela eta ondorengo tarte eta faseetan banatzen dela:

#### **A) I Fasea**

- I Tarte. Laobea (Laing eta Obrascon) Enpresen Aldi baterako Bategiteari (EAB) esleitu zitzaion, 3.735 milioi pezetatan (ehuneko 0,56ko baja), eta 28 hilabeteko burutze epearekin (uztailaren 28ko 704/1989 Foru Agindua).

- II Tarte. “Cubiertas y Mzov” delakoari esleitua, 5.190 milioi pezetatan (ehuneko 1,69ko baja),

28 hilabeteko burutze epearekin (uztailaren 28ko 705/1989 Foru Agindua).

#### B) II Fasea

- "Huarte, S.A."ri esleitua, 3.100 milioi pezetatant (1,98ko baja) eta 21 hilabeteko burutze epearekin (urriaren 8ko 1149/1990 Foru Agindua).

#### C) III Fasea

- I Tarte. "Cubiertas y Mzov" delakoari esleitua 4.740 milioi pezetatant (ehuneko 2,21ko baja), 29 hilabeteko burutze epearekin (abendua 10eko 1425/1990 Foru Agindua).

- II Tarte. "Laobea II (Laing y Obrascon)" EABri esleitua, 4.944 milioi pezetatant (ehuneko 1,12ko baja) eta 28 hilabeteko epearekin (abendua 10eko 1426/1990 Foru Agindua).

Beraz, esleitu den guztiak 21.710 milioi egiten du.

Obra guztia irekin zen ofizialki zirkulaziorako 1995eko maiatzaren 5ean.

## II. ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA.

Txosten honek aipatzen dituen jarduketei aplikak dakiekeen araubide juridikoa funtsean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuari buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legeak (aurrerantzean KFL) osatzen du. Administrazio baldintza partikularren orriek (aurrerantzean ABPO) eta izenpeturiko kontratuen beren xedapeenek. Indarra hartu eta geroko kontratuari dagokienez, laguntza teknikoko kontratuak arautzen dituen apirilaren 25eko 161/1991 Foru Dekretua ere da aplikatzekoa. Foru Dekretu horrek indarra hartu baino lehen apirilaren 4ko 1005/74 Errege Dekretua zegoen indarrean. Azkenik, 1994ko maiatzaren 16tik aurrera, Nafarroako Gobernuaren egun bereko Erabakia ere, esleipen-prozedurari buruzkoa, aplikatzekoa da.

Halaber, Nafarroan KFLren edukia garatzen duen kontratazioari buruzko erregelamendu orokorrik ez dagoenez, ordezkotza izateko, Estatuko Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra (aurrerakoan EKE) erabili behar dugu, azaroaren 25eko 3419/1975 Dekretuaren bidez onetsi zena eta Estatuko Kontratuari buruzko Legea (aurrerakoan EKL) garatzen duena.

Azken Lege hau 1995eko maiatzean Estatuko administrazio publikoaren kontratuari buruzko Lege berriak ordeztu zuen. (Maiatzaren 18ko 13/1995 Legeak).

Ingurugiro alorrari dagokionez, ingurugiro eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko

1302/1986 Errege Dekretu Legegileak eta hori garatzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak dute indarra, baita Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak (NHIB) obra horiei buruz eginiko ingurugiro eraginaren aitortpenek bere ere.

## III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.

Txosten honen helburua da Iparraldeko Autobiaren gastu osoa erakustea, aurreko txosteneko eragiketen mozketatik izan diren gainerako ordainketak, 1995eko abenduaren 31ra arte, kostuaren osagarri bakoitzean sartuz:

- Proiektuak
- Desjabetzeak eta kalteordainak
- Obra
- Obra osagarria
- Berrezarpenak
- Laguntza teknikoa eta obra-zuzendaritza
- Segurtasuna
- Bestelako gastuak

Gainera, lanaren helburua da aurreko txostenaren ondoren gertatu diren aldaketan eta obra osagarrien legezketasunari buruzko iritzia ematea, eta obrak bere azken aldean eta ustiapenak bere hasieran eduki duten ingurugiro-eraginaren kontrola zein jarraipenaren gaineko azterketa egitea.

Metodologiari dagokionez, Ganbara honek erabili ohi dituen programak aplikatu dira, bere auditoretza-gidetan biltzen direnak eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoen Koordinazio Batzordeak onartu dituen sektore publikoko auditoretzari buruzko hatsapen eta arauen barruan garatu direnak.

Lana Herrilan Departamentuko kontabilitate-lerroen azterketarekin osatzen da, baieztatu ahal izateko ez dagoela autobiari egotzi behar zitzaion eta okerre besterik kontabilitate-lerro batzuetan kontabilizatu den gasturik.

Zelaiko lana ekainean, uztailean eta abuztuan egin izan da, eta auditoretza-teknikari batek eta auditore batek egin dute.

Ondoren aipatzen diren gorabeherei buruz ez dugu iritzirik eman, izaera teknikoko mugak eduki ditugu eta: proiektuen kalitateari buruz, egindako aldaketan salneurriari buruz eta egokitasunari buruz; izan ere, ez genuen gai hauetan aditua den teknikaririk iritzia emateko.

Gure eskerrik beroenak Herrilan Departamentuari gure lan hau egiteko eman digun laguntzagatik.

**IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.**

Aurreko autobiari buruzko txostenean adierazten genuen bezala, eta txosten honetan emango ditugun ondorioak eta gomendioak eman baino lehen, azpimarratu behar dugu obra honetan gertatu diren inguruabar bereziek gogorki baldintzatu dutela proiektua egitea eta burutzea, eta honek kostu erantsia ekarri duela, ez bakarrik segurtasunaren kapituluaren, baizik eta obraren kapitulu guztietan.

Esan behar da, baita ere, txosten hau eta aurrekoa osagarriak direla. Beraz, aurreko txostena moztu zen 92/12/31 baino lehen izan ziren proiektuei, segurtasunari, esleipenei, azpikontratazioei eta aldaketei buruzko iritzi egokia edukitzea, beharrezkoa da txosten hau 1993ko 29 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenarekin osatu. Beste hainbeste gertatzen da bertan ematen ziren ondorio eta gomendioekin.

**1. Obraren kostua** (txosteneko V. atala).

1985eko hasierako aurreikuspenen arabera, autobiarako zenbatesten zen kopurua 11.500 milioikoa zen. Kopuru hau 1989ko Foru Legeak onartu zuen inbertsioen Hirurteko Planean gaurkotu zen, eta 15.118 milioitan gelditu zen, obra definitzeko hainbat dokumentu tekniko garatzearen ondorioz.

Ondoren, 1989 eta 1990ean obraren fase guztiak esleitu ziren, eta esleipenaren kopurua 21.708 milioi izan zen. Kopuru honi gehitu behar zaio 1992an esleitu zen Leitzarango Zubia -763,4 milioi- eta Pagalletako magalak tinkoagotzeko lanak -87,6 milioi-. Hortaz, obra guztien esleipen-kopuruak 22.532 milioi egin zuen. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste 11.166,9 milioi, onarturiko obra-aldaketengatik eta 1.883,1 milioi gehiago, BEZ, salneurrien berraztertzea eta hornidura bereziaren kontzeptupean. Honela, azkenean 35.582 milioiko kopurua egiten zen.

Ondoren, burutze-kostu honek badu oraindik ere gehikuntzarik, proiektuak, desjabetzeak, kalteordainak, obra osagarria, zerbitzuen berrezarpena, laguntza teknikoa, segurtasun eta beste hainbat gastu direla-eta.

1995eko abenduaren 31ko azken kitapenera arte ordaindu den gastu osoak 43.524 milioi egiten du, eta kopuru hori ondoren ikus daitekeen eran banakatuko dugu:

	Milioi pezeta
Proiektuak	415,6
Desjabetzeak eta kalteordainak	1.053,1

Obra	35.582
Obra osagarria	297,2
Zerbitzuen berrezarpena	116,6
Laguntza teknikoa	1.545,7
Segurtasuna	4.510,6
Beste hainbat	3,8
<b>Guztira</b>	<b>43.524,8</b>

Beste alde batetik, autobiak hainbat dirusarrra eduki ditu, alde batetik Leitzarango zubia kofinantzatzeko Gipuzkoako Foru Diputazioak eman duen dirua eta beste alde batetik Gobernu zentralak segurtasun-gastuen parte bat itzultzeko eman duena.

Horregatik, hona Nafarroako Gobernuak eduki dituen gastu garbiak biltzen dituen koadroa:

	milioi pezetak
Gastuak, guztira	43.524,8
Leitzarango zubiaren %50	(409,3)
Segurtasun-gastuen itzulera	(1.907,6)
<b>Gastu garbiak, guztira</b>	<b>41.207,9</b>

**2. Proiektuak** (txosteneko VI. atala).

Kontzeptu honetan, 415,6 milioi pezetako gastua zuena, ez da ia mugimendurik izan, 3,1 milioi baino ez 1992ko abenduaren 31tik aurrera. Hortaz, proiektuen kalitateari dagokionez, ehuneko 20ko kalteordain-kontentsazioari dagokionez eta enpresa espezializatu bati eskatutako proiektuen salneurrien azterketari dagokionez aurreko txostenean egiten genituen gomendioek eta ondorioek bere hartan diraute.

**3. Desjabetzeak eta kalteordainak** (txosteneko VII. atala).

Aurreko txostena egin zen egunetik aurrera kontzeptu honetan 121,8 milioiko mugimendua izan da, bere gastuak, guztira, 1.053,2 milioi pezeta egiten duelarik.

Lehen txostenean egin zen azterketa zehatza eta gastu hauen gainean egiten den kontrolaren arrazoizkotasuna ikusirik, uste dugu ez dela beharrezkoa berriz honen gaineko azterketa egitea.

**4. Obra** (txosteneko VIII atala).

1992ko abenduaren 31z geroztik, aurreko txostena bukatu zen eguna, beste bi obra egiten dira: Leitzarango ibaiaren gaineko zubia (1059/92 F.A.) eta Pagalletako magalak tinkoagotzeko lanak 1041/95 F.A., eta bi lan hauek zenbat jotzen

zuten lehen ere aipatu da obraren kostuaren barruan.

Gainera, obra nagusiaren faseetan lanean segitzen da, bukatzen den arte.

Egin den lanaren ondorioz garrantzizkoen obraren aldaketak hartzen dituzte aintzat. Aldaketa hauek obra berriei eragiten diete, baita autobiako hiru faseei ere, eta honako hauek dira:

- Aldaketa gehienak, eta autobiako hiru faseetan, proiektuaren akats eta aintzat hartu ez diren ustekabeetan oinarritzen dira, horri buruzko erantzukizunik ez delarik eskatu.

- Aldaketa hauetako asko indarreko kontratuei buruzko legeak aurreikusten duen onarpen eta tramitazio-prozedurari jarraitu gabe burutzen dira.

- Aldaketa hauetako asko aurrekontu-izendapenik ez zegoela egin ziren, eta ondorengo ekitaldiei egotzi zitzaizkien.

- Obraren harrera epez kanpo egin zen eta ongi burututakoa bezala.

Obren behin-behineko harrera-aktak izenpetu eta gero, Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez azken aldaketa batzuk onartzen dira, eta formaren aldetik KFLk ezartzen dituen baldintzen arabera tramitatzen dira, "a posteriori" erregularizatzeko eginda zeuden lan-aldaketa tramitatu gabeak, burutze-epea luzeagotuz bat etor dadin benetan bukatu ziren egunarekin. Burutze-epea ia fase guztietan esleipenean hasieran aurreikusten zena baino bi aldiz luzeagoa izan zen.

1992ko abenduaren 31ren ondorengo aldaketa hauek 8.872,8 milioi pezeta egiten dute, eta aurretik egin direnekin batzen baditugu, 2.294,1 milioi, 11.166,9 milioi jotzen dute, hau da, esleipenaren ehuneko 49,5.

Aldaketa nabarmen hauen ondorioz, eta honi gehitzen badizkiogu BEZaren aldaketa, salneurrien berrazterketa eta hornidura bereziak direla eta ordaintzen diren 1.883,1 milioiak, obra guztia-rengatik ordaintzen den kopuruan, hau da, 35.582 milioi horietan, esleipenarekin konparatuz desbiderapen ekonomiko nabarmena gertatzen da, ondoren laburbilduko duguna:

	Milioika pezetatan		
	Esleitutako salneurria	Ordaind. guztira	Esleipen. g. ordaind. %
I Fasea			95
I Tarte	3.735	7.797,5	109
II Tarte	5.190	9.647,3	86
II Fasea	3.100	4.532,6	46
III Fasea			31

I Tarte	4.740	5.189,1	9
II Tarte	4.943	7.473,3	51
Leitzarango zubia	736,4	827,7	12
Pagalletako magalak	87,6	114,5	31
Guztira	22.532	35.582	58

Ikusten ahal denez, desbiderapenak bereziki handiak dira I Fasean (bi tarteetan batez bestea ehuneko 95 da). Desbiderapena, II fasean, ehuneko 46ra jaisten da, eta III. Fasean ere jaisten da, bi tarteetan batez bestekoa ehuneko 31 delarik.

Beraz, III Faseko batez besteko desbiderapena hiru faseetan txikiena da, eta hau bat dator lehengo txostenean esandakoarekin, enpresa espezializatu baten aholkularitzarekin, honako ondorio hauetara iristen zena:

“• III Faseko salneurriak I eta II Fasekoak baino ehuneko 40 handiagoak dira, batez beste.

• III Faseko salneurriak merkatuko batez bestekoa baino ehuneko 25 handiagoak dira, gorabehera handiekin: egitura eta drenajeetan ehuneko 10 handiagoak dira eta bidezoru malguko betunean ehuneko 60 handiagoak.”

Aurreko ondorioak ikusirik, Ganbarak lehengo txostenetan emandako gomendioak errepikatu nahi ditu:

• *Espedienteetan, indarreko legeriak ezartzen duen norberaren baliabideen aski eza eta proiektuak aurrera ateratzeko sektore pribatura jotzeko justifikatzeko beharra behar bezala betetzea.*

• *Eginkizun horiek dituzten Departamentuko organoek proiektuen gainbegiratzea eta kontrola areagotzea, eta horretarako nahiko baliabiderik ez bada, hirugarrenen bidez egitea. Gainbegiratze honek kalitatea bermatu behar du eta ahal den neurrian proiektuen akatsak eta ustekabeak galarrizko ditu, honek guztiak bere eragina izaten baitu obrak burutzeko garaian, burutze-kostuak igoaraziz eta askoz konplexuago bihurtzen duten aldaketak ekarraziz. Bestalde, proiektuek akatsak badituzte, Gobernuak indarreko legerian aurreikusten diren neurri ikertzaile eta zuzentzaileak hartu beharko ditu.*

• *Aldaketen alorreko legezketasuna betetzea, obren erritmo normala ukitu gabe behar den arintasunez bideratu eta onartzeko. Horrela posible izanen da obren kostuen kontrola egokia izatea, burutu ahala, alegia, haien beharra behar bezala justifikatuko delarik eta, legeriak eskatzen duen kasuetan fidantzen zenbatekoa birdoituko delarik.*

• *Hornidura berezia modu hertsian erabiltzea, benetan bereziak diren kasuetan, indarreko lege-riarekin bat etorritz.*

##### 5. Obra osagarria (txosteneko IX. atala).

Hauek esleitu den proiektuan ez zeuden obrak dira, obra nagusiaren osagarri direnak, eta obra nagusiaren esleipen-salneurriaren %20 baino gehiagoko aurrekontua ez dutenez, nagusiaren kontratistari agintzen zaizkionak.

Esleipenak 92/12/31 baino lehen egiten dira, hau da, aurreko txostena eman baino lehen, eta egun horretatik aurrera guztira 297,2 milioi pezeta jotzen duten obra-ziurtagiriak jasotzen dira.

##### 6. Zerbitzuen berrezarpena (txosteneko X atala).

Obrak ukitzen dituen telefono-lerro eta lerro elektrikoek ari da atal hau. Enpresa jabeek, hau da, Fensak, Telefónicak eta abar egiten dute.

Atal honetan, gastuak, guztira, 116,6 milioi egiten du, eta honi buruz lehengo txostenean ematen genituen ondorioak eta gomendioak errepikatzea baino ez dugu.

##### 7. Laguntza tekniko eta obra-zuzendaritza (txosteneko XI. atala).

Autobiako hiru faseetan laguntza tekniko eta obra-zuzendaritza, II faseko obra-zuzendaritza alde batera utzirik, lan zehatz hauek esleitzen zai-zikien kanpoko enpresek daramate, eta gastuak 1.545,7 milioi pezeta jo du.

Obra-zuzendaritzak aldizkako txostenak ematen ditu obren informazio teknikoari buruz, baina informazio horrek ez du jasotzen obren egoera ekonomikoa, ez eta egiteko dagoen obra-zatia edo eta egin diren aldaketak ere.

Bai laguntza teknikoko kontratuak eta bai obra-zuzendaritzakoak, obrek izaten duten atzerapenaren arabera eta desbiderapen ekonomikoaren arabera aldatzeko moduan daude izenpetuta. Honek ondorengo desbiderapen hauek dakartza hasierako esleipenari buruz:

	Esleipena	Ordainduta guztira	Esleipenari buruzko desbiderapenaren %
I Fasea	298,2	883,3	196
II Fasea	114,1	181,5	59
III Fasea	405,2	475,6	17

Lehen esandakoa aintzat hartuz, hona gure gomendioak:

*Enpresa hauek beren betebeharrak zorrotz betetzea, obren burutzearen gaineko kontrola eta jarraipena hobea izatea ekarriko duena.*

*Azken urte hauetako jarduna, behin eta berriz errepikatzen dena, honako hau izaten da: obren laguntza tekniko eta zuzendaritza-zerbitzuak kanpooan kontratatzea. Hau ekartzen ari da administrazioaren gero eta gehiagoko desteknifikazioa, bai ikuspegi teknikotik nola gastu-mailaren ikuspegitik hil edo bizikoa den arlo batean. Hau honela, kontuan hartu behar da ez ote den komenigarria izango obra-zuzendaritzak eta laguntza teknikoak Departamentuko teknikariek aurrera eramatea, gutxienik tarterik garrantzizkoenetan, horretarako beharrezkoak diren unitate teknikoak sortuz.*

##### 8. Segurtasun gastuak (txosteneko XII atala).

Segurtasun-enpresen kontratazioa eta atal honetan dagoen ia gastu guztia -4.510,6 milioi jotzen duena-, 1992ko abenduaren 31 baino lehen gertatzen da. Hortaz, lehengo txostenean ematen ziren gomendio eta ondorioak baliagarriak dira kasu honetan ere.

Horren ondoren Gobernu zentralak 1.907,6 milioi itzultzen ditu.

1993 urtean 102 milioi pezeta egiten duten gastuak sortzen dira. Kopuru horretan, kontusailik handiena da Goardia Zibilaren destakamendua, eta 93,9 milioi pezeta egiten du. Gasutu honek ez du Estatuko administrazioaren eta Nafarroako administrazioaren arteko lankidetzatresna baten euskarri formalik.

##### 9. Gorabeherak eta ondorengo gastuak (txosteneko XIV. atala).

Gobernuaren aholkularitza juridikoak eta Herri-lan Departamentuak ematen duten informazioaren arabera, eraikitzaileek ezarritako errekurtsuak badira gaur egun. Errekurtsu hauek 2.890,8 milioi jotzen dute, eta epaileen ebazpenen arabera, autobiako gastu osoa, etorkizunean, horrenbeste garesti liteke.

Beste alde batetik, gure lana bukatu eta gero, gastu txikiak gertatzen ari dira, 63,7 milioi egiten dutenak. Gastu hauek lorazaintza zein landareak birlandatze kontuetan egiten ari dira, eta ustiapenaren gastu normalizat jo daitezke. Kopuru hau hutsaren hurrengoa da, ia, autobiaren gastu guztiarekin alderatzen badugu.

Arazo teknikoak gertatzen ari dira, bestalde, eta tuneletan lurjausiak izan dira. Herrilan Departamentuak azterketa bat eskatu du berriki, zergatik gertatzen diren eta arazoa konpontzeko zer egin behar den jakiteko. Azterketa juridikoek

zehaztuko dute azterketa honen kostua obraren kontratistek ordaindu behar duten edo ez.

**Laburbilduz**, obra teknikoki zail bati buruz ari gara, hasierako urteetan aurkako testuinguruan egin zenari buruz. Honek ekarri du segurtasun kapituluaren kostua behar zena baino handiagoa izatea eta, zeharka, gainerako kapituluetakoa kostuak ere handiagoak izatea.

Alabaina, inguruabar berezi hauek ez dituzte obraren salneurrian izan den desbiderapen itzelak –esleipenaren salneurriaren ehuneko 58– egoki azaltzen, ez eta hasierako salneurriarekiko bikoizketa gertatzen den epea ere.

Obrek izan dituzten aldaketa ugari horiek proiektuen akatsetan eta aurreikusitako ez dituzten gorabeheretan oinarritzen dira. Administrazioak ez zituen proiektu hauek gainbegiratu, eta indarreko legeriak aurreikusten dituen neurri ikertzaile eta zuzentzaileak ez ziren hartu.

Sartu diren aldaketetako asko ez ziren bere egunean onartuak izan, eta obra egin zen aurrekontu izendapenik gabe. Hau honela, Gobernua-ren Erabakien bidez erregularizatu nahi izan da obra hauen egoera bukatu eta gero, “a posteriori” salneurria eta epea aldatu direlarik errealtateari egokitzeko, eta kopuru handien ordainketak ekitaldi batzuetatik besteetara igaroz.

Administrazioak, nahikoa baliabiderik ez zuela argudiatuz, obra-zuzendaritza eta laguntza tekniko kanpoan kontratatu zituen obraren zuzendaritza eta kontrola hobetzeko asmoz.

Hala ere, zerbitzu hauen kostua 1.545 milioi izan da, eta, esaten genuen bezala, obrek desbiderapen handiak izan dituzte salneurrian eta epean, eta desbiderapen hauen onuradunak, paradoxikoki, zerbitzu hauek esleituta zeukaten enpresak izan dira, euren kontratuetan goranzko aldaketak eduki dituztelako.

Administrazioak ez ditu erabili indarreko legeriak obraren, obra zuzendaritzen edo laguntza tekni-

koaren esleipen-hartzaileei erantzukizunak eskatzeko ezartzen dituen neurriak.

Beste alde batetik, txostena jakinarazten den egunean ebazteke daude enpresa kontratistek eginiko erreklamazioak, 2.890 milioi jotzen dutenak, eta etorkizunean autobiararen kostua beste horrenbeste garesti dezaketenak.

Gaur egun, berme-epea bukatu eta gero, bakarrik jaso ahal izan dugu I faseko obraren behin betiko harrera egin dela, ez dugularik jaso gainontzeko obraren behin betiko harrera egin dela. Beste alde batetik, azken hilabeteotan arazo teknikoak sortzen ari dira tunelekin, eta lurjausiak gertatzen ari dira. Herrilan Departamentua aztertzen ari da lurjausi hauen arrazoiak zeintzuk diren eta berau konpontzea zenbat kostatzen den, obraren esleipen-hartzaileei egozten ahal zaizkien zehazteko.

Azkenik, Ganbarak esan nahi du berriz ere planifikazioa, proiektuak egitea eta proiektuen gainbegiratzea izugarri garrantzizkoa dela gero obrak bere epean eta bere salneurrian burutuko direla ziurtatzeko.

## V. KOSTUEN LABURPEN OROKORRA.

Ondoren laburpen bat eskainiko dugu, non “Iparraldeko Autobia” obrari egozten ahal zaizkion kontzeptu guztiak erakusten baititugu, 1995eko abenduaren 31ra arte egin izan diren ordainketak bilduz.

Kontzeptu horiek obra normal baten prozesuaren sistematika logikoari jarraikiz, hau ahalezkoa den neurrian, aurkeztuko ditugu.

Kontzeptu bakoitzeko kostuak autobia banatzen den I, II eta III faseetako bakoitzari egokitzen zaizkio, eta I eta III faseko I eta II tarteei, hau ahalezkoa den neurrian.

Proiektuak, segurtasuna, desjabetzeak bezalako kontzeptuak, eta beste hainbat, ezin daitezke sar fase eta tarte bakoitzean.

(milioi pezetatan)

	Proiektuak	Desjabetzeak Kalteordaina	Obra	Obra Osagarria	Zerbitzuen berrezarpena	Laguntza Teknikoa	Segurtasuna	Beste hainbat	Guztira
<b>I Fasea</b>									
I Tarte			7.797,5	210,6	18,7	-			8.026,9
II Tarte			9.647,2	49,6	22,1				9.719
Bi tarteak		452,8				883,3			1.336,1
<b>Guztira</b>		<b>452,8</b>	<b>17.444,8</b>	<b>260,2</b>	<b>40,8</b>	<b>883,3</b>			<b>19.082,2</b>
<b>II Fasea</b>	<b>1,8</b>	<b>176,1</b>	<b>4.532,5</b>		<b>35,1</b>	<b>181,4</b>			<b>4.927,2</b>
<b>III Fasea</b>									
I Tarte			5.189,1		33,9				5.223
II Tarte			7.473,3		6,6	0,9			7.480,8
Bi tarteak		386				474,5			860,6
<b>Guztira</b>		<b>386</b>	<b>12.626,2</b>		<b>40,5</b>	<b>475,4</b>			<b>13.564,6</b>
Leitzarari ibaiaren gaineko zubia			827,6			4,5			832,2
Pagalletako magalak tinkoagotzea			114,4						114,4
<b>Autobia (faseak bereiztu gabe)</b>									
Proiektuak	412,5								412,5
Segurtasuna							4.510,6		4.510,6
Desjabetzea. eta kalteordaina		38,1							38,1
Beste hainbat	1,2			36,8		0,7		3,8	42,7
<b>Guztira</b>	<b>413,7</b>	<b>38,1</b>		<b>36,8</b>		<b>0,7</b>	<b>4.510,6</b>	<b>3,8</b>	<b>5.004</b>
<b>Autobia, guztira</b>	<b>415,6</b>	<b>1.053,1</b>	<b>35.582</b>	<b>297,2</b>	<b>116,6</b>	<b>1.545,6</b>	<b>4.510,6</b>	<b>3,8</b>	<b>43.524,8</b>

Beste alde batetik, autobiak dirusarrera batzuk izan ditu; alde batetik, Leitzarango zubia Gipuzkoako Foru diputazioarekin kofinantziazetik datozenak eta beste alde batetik Gobernu zentralak segurtasun gastuengatik itzuli dion dirua. Beraz, Nafarroarentzat, obren gastu gordinak honako hauek dira:

	Miloi pezetak
Gastuak, guztira	43.524,8
Leitzarango zubiaren %50	(409,3)
Segurtasun gastuen itzulera	(1.907,6)
Garbia, guztira	41.207,9

#### VI. PROIEKTUAK.

1992ko abenduaren 31n "proiektuak" atalak 412,5 milioi pezeta biltzen zituen. Egun horren ondoren gastua 3,1 milioi igo da, ondoren aipatzen diren kontzeptuak direla-ta:

	Milioika pezetak
1992/12/31ko saldoa	412,5
Irurtzungo lotunea argizatzea	1,9
Beste gastu batzuk	1,2
<b>Guztira</b>	<b>415,6</b>

Normala denez, gastuek oso mugimendu txikia eduki dute 92/12/31tik aurrera. Hortaz, ez dugu ezer gehiago esango bestela aurreko txostenean luze eta sakon aztertu genuen atal honi buruz.

#### VII. DESJABETZEAK ETA KALTEORDAINAK.

Mugimendua, 92/12/31z geroztikoa, honako hau izan da:

	Miloi pezetak		
	92/12/31ko saldoa	Gastu berriak	Azken saldoa
I Fasea	431,9	20,9	452,8
II Fasea	155,4	20,8	176,2
III Fasea	305,9	80,1	386
Hiru faseak batera	38,2	-	38,2
<b>Guztira</b>	<b>931,4</b>	<b>121,8</b>	<b>1.053,2</b>

Autobiari buruzko aurreko txostenean esaten genuenez, txostenak, bukatu zen egunera arte, ondoren aipatzen direnengatik egindako ordainketak biltzen zituen: aurreiazko gordailuengatik eta azkar betetze eta desjabetzeagatik, "adiskidantza elkar ulertze"aren bidez hitzartuak eta dagokion aktaz dokumentatuak. Ordainketa hauek autobioak proiektuak ukitutako eskubide eta onda-



sun kontraprestazioak dira, jendarteko informazio-  
ra zabaldu direnak.

Kalteordainengatiko gastuak ondorengo kontzeptuetan sartzen dira: ukitutako lurretako belarren probetxamendua nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintza-erabilera bertan behera gelditzeagatik, Urritzako Kontzejuan hilerri berria egitea, eta abar (honek guztiak 99,7 milioi egiten du). Era berean, atal honetan sartzen dira 96,5 milioi jotzen duen atentatuengatiko kalteordainak.

Esan egin behar da aipatu kopuruak ez duela Autobian kontzeptu honengatik izan den gastua agortzen, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeak ezartzen duen dinamikak berak ekartzen du bi aldeetako baloraziorik egin gabeko hainbat lurzati izatea, eta gerta daiteke beste zenbait egoeratan kalteordaina ordaindu behar izatea, berriro ere.

Ikusten dugunez, 92/12/31tik aurrera gastu berriak gertatu dira kontzeptu hauengatik, eta gastu hauek 121,8 milioi egiten dute.

Aurreko txostenean kontzeptu honen berrazterketa goitik beherakoa egin genuen, eta atera genuen ondorioa izan zen gastuak arrazoizkoak zirela, behar bezalako agirizko euskarria bazeuzkatela, eta horregatik ez dugu uste izan azterketa errepikatu behar zenik; izan ere, aurreko txostena egin zenetik izan den mugimendua oso txikia izan da.

### VIII. OBRA.

Obraren kontzeptuaren barruan bi bereiztuko genituzke: obra nagusiari erasten zaizkion obra berriak eta obra nagusien kontratu bidezko aldatketak. Ondorengo koadroan bilduko ditugu bi azpikontzeptu hauek sorrarazi dituzten gastuak aurreko txosteneko satatik aurrera.

(millones de pesetas)

	Kontrataren aurrekontua		Enpresa	%20 92/12/31n aldaketak	Beste batzuk	92/12/31ren ondorengo aldaketak	Beste hainbat kontzeptu	Ordainduta guztira
I Fasea								
I Tarte	3.654	3.735	Laobea	747	401,5	2.448,4	465,6	7.797,5
II Tarte	5.176	5.190	Cubiertas	1.038	107,6	2.651,6	660,1	9.647,3
II Fasea	3.042	3.100	Huarte	-	-	879,6	553	4.532,6
III Fasea								
I Tarte	4.792	4.740	Cubiertas	-	-	421	28,1	5.189,1
II Tarte	4.929	4.943	Laobea	-	-	2.367,2	163,1	7.473,3
Obra berria								
Leitzarango zubia	901	736,4	Mariezcurena	-	-	82,2	9,1	827,7
Magalak tinkoagotzea	99,8	87,6	Tesinsa	-	-	22,8	4,1	114,5
Guztira		22.532		1.785	509,1	8.872,8	1.883,1	35.582

#### VIII.1. OBRA BERRIA.

Aurreko txostenetik beste bi obra egin dira: Leitzarango ibai gaineko zubia eta Pagalletako magalak tinkoagotzea.

##### VIII.1.1. Leitzarango ibai gaineko zubia.

Leitzarango bidezubiak autobia izen bereko ibai gainean pasatu behar denekoa konpontzen du, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugan.

Gipuzkoako Foru Diputazioak lehiaketaren bidez esleitu zuen bidezubia eraikitze proiektua, 1992ko urriaren 26an izenpetu zen lankidetzaituen eraskinaren arabera, besta hau ere ezartzen zuena:

- Nafarroako Gobernuak obraren lizitazioa bideratuko du, eta hala badagokio, zuzendaritza eta laguntza tekniko beharrezkoa ere.

- Gipuzkoako Foru Diputazioak Nafarroako Gobernuari ordainduko dio goian aipatutako kontratuen ondoriozko gastuen ehuneko 50.

- Bidezubiaren jabetza, mantenimendua eta zaintza Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mugak zehaztuko ditu.

Nafarroako Gobernuak bereganatuko du obrazuzendaritza, beraz ez da kontratua lizitatzen dena baizik eta obrak.

## A) Hasierako prestaketak

Nafarroako Gobernuaren erabakia izan eta gero, Kontseilariak, 1059/92 Foru Aginduaren bidez, kontratazio-espeditentea onartu du, bere ABPO, 901 milioiko aurrekontua eta guzti, eta lehiaketaren bidezko esleipen-prozedurari hasiera eman dakion xedatu du. Hala ere, honako hau esatea komeni da:

- ABPOek ez dute esleipen-irizpideak zenbaitzen, eta gainera "enpresek eskualdean duten interesa" irizpidea sartzen da. Irizpide hau ez bide dator bat KFLko 40.2 artikulua ezartzen duenarekin.

## B) Esleipena

Espeditentea bat dator KFLrekin, eta esleipena Bide Zerbitzuko zuzendariaren txosten-proposamenaren arabera da, berau delarik esleipenaren irizpideak baloratu eta aplikatzen duena. Azkenik eskaintza merkeenari esleitzen zaio, "Construcciones Mariezcurrena" delakoari, 1992ko abenduaren 31n, 736,4 milioiko aurrekontuarekin eta 7 hilabeteko burutze-epearekin.

## C) Kontratuaren burutzea.

Kontratu honek bi aldaketa eduki ditu, gainera, ikusiko dugunez, eta autobiako gainerako tartetan bezala, kontratua salneurritz eta epez gainditu delarik, hau onera ekartzen da hirugarren aldaketa baten bidez, behin-behineko kitapenarekin batera bideratzen dena eta behin-behineko harreara-akta izenpetu eta lau hilabete beranduago onarturik.

Ondoren aztertuko ditugu:

## C.1) Hiru hilabete luzatzeko aldaketa.

1993ko irailean bukatzen zen kontratua. Abuztuan luzapena bideratzen hasten da, eta irailean onartu. Formaz indarreko legeriak eskatzen dituen baldintza guztiak biltzen ditu.

Txosten-proposamenak atzerapenak azaldu eta zurtzen ditu, kontratistak ez duela errurik esaten duelarik. Zuinketan baieztatu ahal izan zen proiektuaren arabera zutabetako bat ubidearen barruan gelditzen zela, eta hiru metro mugitu behar izan zen, zundaketa berriak egin behar izan ziren, zimentazioa aldatu behar izan zen eta desjabetze berriak egin behar izan ziren.

C.2.) Proiektuan aurreikusirik ez zeuden unitate eta obra gehiago egin behar izateagatik aldaketak

Aldaketa hau KFLko 16. artikulua ezartzen dituen bete beharreko baldintza guztiak betez bideratu zen. Gehienak proiektuan aurreikusitako-

ak ez eta neurketak ezberdinak izan direlako egin behar izan dira, ehuneko 80, zehatz esanda, eta gainerakoak proiektuan aipatzen ez ziren gauzak egin behar zirelako, txosten tekniko-proposamenak esaten duenez.

Salneurrian 51,7 milioiko gehikuntza onartzen da. Horixe onartzen duen 1688/93 Foru Agindua, berariaz ezartzen du ezen "horrek ez duela ekarriko burutzeko epea luzeagoa izatea". Hala ere, 1993ko abenduaren 31ko Ebazpenean aztertu den hiru hilabeteko luzamenduaren epe-muga gainditua zen (1993ko abenduaren 16ra arte).

C.3.) Behin-behineko kitapenarekin datorren erregularizazioa

Kontratuaren epea bukatu eta hamar hilabete beranduago, eta obren behin-behineko harrera egin eta lau hilabete beranduago, onartzen da, behin-behineko kitapenarekin batera, kontratuaren aldaketa bikoitza:

- Alde batetik, zubiko bidezorua aldatzea onartzen da, salneurrian 12 milioi pezetako gehikuntza eta epean sei hilabeteko gehikuntza dakarrena. Aipatu behar da txosten tekniko-proposamena 1993ko abendukoa dela (1994ko urriara arte onartzen ez den arren). Aldaketa hau, formaz, indarreko legeriak eskatzen dituen bete beharreko baldintza guztiak biltzen ditu.

- Beste alde batetik, beste aldaketa bat onartzen da behin-behineko kitapenean izan diren salneurri eta epe-gehikuntzak erregularizatzeko. Atzerapenen arrazoia aurrekontukoak dira -izen dapan falta-. Alabaina, obrekin aurrera jarraitzeko agindua eman zen, gelditu izan balira eraikia zegoen obraren zatia hondatuko baitzen.

Erregularizazio honi buruz, beste hainbat tartetan izan direnen antzekoa izan denez, beste horietako batetara jo dezan horretaz argibide gehiago nahi duenak.

**VIII.1.2. Pagalletako magalak tinkoagotzea.**

Lanak hasi ziren unetik ikusi zen Pagalletako magaleetan egonkortasun-arazoak bazirela, eta I faseko I tarteko administrazio espeditentean agiri askok hitz egiten dute aipatu egonkortasun arazo ez.

## A) Hasierako prestaketak

1994ko azaroan txosten bat egin zen Pagalletako aldean gertatzen ari ziren lurjausiak kontrolatzeko neurriei buruzkoak.

1995 urtean, Bide Zerbitzuak prestaturiko proiektu batetik abiatuz, obrak esleitzeko hasierako prestaketak egiteari ekin zitzaion; magalek

sorrarazten duten arriskua ikusirik, aukerazten den sistema zuzeneko esleipena da.

Hala ere, eta zuzeneko esleipena bada ere, ABPOetan esaten da obren esleipena zuzendu behar duten irizpidea eta baremoa zeintzuk diren, Nafarroako Gobernuaren 1994ko Erabakia ezarzen duen bezala.

#### B) Esleipena.

Bost enpresari eskatzen zaie eskaintza, eta hiru proposamen jasotzen dira, eta beste bat epez kanpo. Ondoren lehiaketa eman gabe uzten da, foma-akatsak direla medio, eta apirilaren 10eko 1041/95 Foru Aginduak ezarritakoa jarraituz espediente berri bati ematen zaio hasiera.

“Tesinsa” enpresari esleitzen zaio lana, 87,6 milioiko aurrekontuarekin eta 8 hilabeteko burutze epearekin, esleipen-hartzaileak barrera dinamikoak paratuko dituela argudiatuz, “geobruigg” izeneko sistema bat, zehatz esanda.

Hasierako zuinketa eta bideragarritasun-akta egiten denetik (1995eko otsailaren 16) esleipena egiten den bitartean (1995eko apirilaren 10) bi hilabete pasatzen dira, eta hiru zuinketa-akta baieztatzen den arte (1995eko maiatzaren 12) eta lanak hasten diren arte, lehenengo kontratazio-espedienteak zituen forma-akatsak direla-ta.

#### C) Kontratuaren burutzea.

1995eko abuztuaren 26an behin-behineko harrera-akta izenpetu zen, 44 eguneko atzerape-narekin, eta urte hartako abenduaren 1ean, 3589/95 Foru Aginduak hala ezarririk, aldaketa bat onartzen da, epea 45 egun luzatuz eta 22,8 milioi gehiagoko gastua ontzat emanez; modu honetan aurrekontu-izendapenik gabe egindako lanengatiko okerra konpondu zen, kontuhartzaileak aurrekonturik ezagoela eta espediente gelditu zuen arren.

Gelditze hau dagoen arren, Zerbitzuak aldaketak egiteko agindu zuen. Hau honela eginik departamentuaren egiazko obligazioak kontabilitate egoeretan desitxuratzen dira, eta kontratistari atzerapen nabarmenez ordaintzen zaio, korrituen ondoriozko erreklamazioak sortzeko arriskua gertatuz eta indarreko legeria hautsiz.

### VIII.2. OBRA NAGUSIAREN ALDAKETAK.

#### VIII.2.1. I Fasea. I tartea.

Ondoren aztertuko ditugu bai 92/12/31ko autobari buruzko txostena bukatu baino lehen izan ziren aldaketak, baita ondoren egin zirenak ere.

		Epearen aldaketa	Zenbatekoa, milioitan
90/08/31ko E.	%20ko kalteordain-kompentsazioa	12 hilabete	747
961/91 F.A.	Salneurri kontraesankorrak eta bidezorua aldatzea	–	–
960/91 F.A.	Lekunberriko saihezbidea	–	401,5
92/12/31ra arte, guztira			1.148,5
538/93 F.A.	Ormak tinkoagotzea eta aurreikusi gabeko lanak	10 hilabete	1.942,2
95/7/3ko E.	Burutze-epea luzeagotzea eta salneurriak	9 hilabete	506,7
92/12/31tik ondorengoa, guztira			2.448,9
Guztira		31 hilabete	3.597,4

Lehenengo aldaketak aurreko txostenean hartu ziren aintzat, beraz, hemen 92ko abenduaren 31tik aurrera izan direnak aztertuko ditugu.

A) Ormak tinkoagotzeko aldaketa eta proiektuan aintzat hartzen ez ziren unitateen burutzeak.

Nafarroako Gobernuaren 1993ko maiatzaren 28ko erabakiak baimena ematen dio Herrilan kontseilariari autobiarekin zerikusirik duten zenbait kontratu zabalagotzeko, esate batera hau bera, eta zabalagotze horrek 1.942,2 milioi jo zuen.

Kontseilariak, ekainaren 538/93 Foru Aginduak esaten zuenaren arabera, kontratuaren aldaketa onartzen du, 41 salneurri kontraesankor onartzen ditu, lanak obra nagusiaren kontratistari esleitzen dizkio eta epea 10 hilabete luzeagotzen du, 1993ko urriaren 16ra arte, hain zuzen ere.

Espediente aztertu eta gero, hona gure ondorioak:

1. Kontratuko burutze-epea 1992ko abenduaren 15ean bukatzen zen, eta aldaketa-espediente

honen lehen jarduketa 1993ko martxoaren 4koa da.

2. Laguntza teknikoak obra-zuzendaritzari egiten dion txostenak bi zati bereizten ditu aldaketa honetan:

- Proiektuan aurreikusten ez ziren obra-unitate berriengatik aldaketa, 801,1 milioi jotzen zuena, bere beharra zenbait kasutan proiektuaren akats eta hutsuneetan arrazoitzen zelarik.

- Proiektuan aurreikusten ziren baina neurkete-tan akatsak edo hutsak zituzten obra-unitateen gehikuntza. Hauek 1.141 milioi jotzen dute eta eginda daude.

**Hitz batez**, kontratuko burutze-epaia bukatu eta sei hilabete beranduago bideratu den aldaketa da, 1993ko ekainaren 11ko 538/93 Foru Agindua- ren bidez onartua eta KFLko 16. artikulua ezar- zen duenaren arabera bideratuta.

Helburua da obrak "a posteriori" agerraraztea. Obra hauen gorabehera, alabaina, Kontuen Gan- barak atzeman zuen bere aurreko txostenean.

Lege txostenak hauxe dio: "agerikoa da kasu honetan ez dela obra-kontratu batean gerta dai- tezkeen faseen hurrenkera kronologiko arrunta ematen". Ezin daiteke aldaketa bat onartu obra bukatua eta behin-behinean harrera eginda dago- enean. Hortik ondorio hauek:

- KFLko 56.3 artikulua dioena hautsi egin da, obran aldaketak gertatu direlarik kontratazio-orga- noak bere baimena eman gabe.

- Ez zegoen aurrekontu-izendapenik.

- Obrari epez kanpo egin zitzaion harrera eta zuzen burutua balitz bezala.

Bere zenbatekoaren haindia kontuan hartuz, esleipenaren salneurriaren ehuneko 47 gehi gaur egun arte onartu diren gainerako aldaketak, bere- ziki azpimarragarria da legeak ezartzen duen pro- zeduraren haustea (kontratazio-organoak ez onar- tzea, aurrekontu-izendapenik ez egotea, eta abar), foru aginduak "erregularizatu" nahi duena.

Aurreko aldaketak epea 1993ko urriaren 16ra arte luzeagotzen bazuen ere, sei hilabete beran- duago obran lanean ari dira oraino eta beste alda- keta batzuk sartzeko, eta honek, noski, salneurria goratu egiten du. Obraren behin-behineko harrera 1994ko uztailaren 13an egiten da.

B) Burutze epea luzeagotzea eta salneurri berriak (Erregularizazioa eta azken kitapena)

Ondoren, ia obrari harrera egin eta urtebete beranduago, aldaketa honetan 9 hilabete luza- pena bideratzen da, 1994ko ekainaren 30era arte, eta 506,7 milioi jotzen duten salneurri kontraesan- korrak onartzen dira.

Bide Zerbitzuak, bere 1995eko ekainaren 13ko txosten-proposamenean, ondorengo hau azpima- rratu eta adierazten du –eskatutako aldaketak burutu direla begibistakoa den arren–:

"Obrak gelditzeak ekarriko zituzkeen ondorio kaltegarriak ikusirik, hau da, galera ekonomiko larriak eta seguru baino seguruago izango zen eraikitako obren hondamena, aurrera segitzeko agindu zen, eta, une honetan, onartzea beharrez- koa da.

Epeari buruz, justifikazioa arrazoi klimatologi- koaren ildotik dator, eta berriz landareak sartzeko proiektua betetzeagatik (landereen ziklo biologi- koa).

Laburbilduz, Nafarroako Gobernuak, eta ez kontseilariak, 1995eko uztailaren 3ko Erabakiaren bidez onartu duen aldaketa da.

Obrei behin-behineko harrera egin eta urtebete ondoren onaturik, gertatu diren lege-hausteak erregularizatu nahi ditu: kontratazio-organoak onartu ez dituen aldaketak, aurrekontu-izendape- nik gabea eta obra epez kanpo ematea.

Azken batez, 2,448,9 milioi jotzen zuen alda- keta bat egin da legeak ezartzen duen jardunbi- dea bazter utzirik.

Ganbararen aurreko txostenean atzeman ziren onartu gabeko aldaketa hauek, eta Ganbarak hala eskaturik departamentuak 1.102,9 milioi pezetatan baloratu zituen aldaketa hauek, eta orduan ere gure iritzia zen egindako aldaketa guztiak ez zire- la biltzen, eta gerora aztertu ahal diren aldaketek hori horrela zela erakutsi dute.

#### VIII.2.2. I Fasea. II Tartea.

Ondoren II tarteko aldaketak erakutsiko ditugu, bereiztuko ditugularik, oraingoan ere, 1992ko abenduaren 31ko autobiarri buruzko txostena baino lehenago egin zirenak eta data horren ondoren egin direnak.

		Epearen aldaketa	Zenbatekoa, milioitan
90/08/31ko E.	%20ko kalteordain-konpentsazioa	–	1.038
959/91 F.A.	Salneurri kontraesankorrak eta bidezorua aldatzea	12 hilabete	107,6
92/12/31ra arte, guztira			1.145,6
1351/92 F.A.	Lurrezko ormak kentzea eta harrizkoak jartzea	–	–
655/93 F.A.	17 salneurri kontraesankor eta obra gehitzea	10 hilabete	1.797,1
95/07/3ko E.	Behin-behineko kitapena eta espedientearen erreg.	9 hilabete	854,5
92/12/31tik ondorengoa, guztira			2.651,6
Guztira		31 hilabete	3.797,2

Lehenengo aldaketak aurreko txostenean aztertu ziren, beraz, ondoren 1992ko abenduaren 31z geroztik egin zirenak aztertuko ditugu.

A) Lurrezko ormak kentzea eta harrizko ormak paratzea.

KFLko 16. artikulua ezartzen dituen betebeharreko baldintzekin bat etorritik eginiko kontratu-aldaketa, zenbait unitate-obra kendu eta beste batzuk paratzeko, dagokion salneurri kontraesankorra onartuz. Ingurugiro eragina txikiagoa delako, erresistentzia handiagoa eta salneurrian gehikuntzarik ez dagoelako justifikatzen da aldaketa hau.

B) Obra-unitate berriak sartzeko aldaketa, 17 salneurri kontraesankorrekin.

1993ko maiatzaren 28ko Nafarroako Gobernuaren Erabakiak baimena ematen dio kontseilariari autobiako zenbait kontratu zabalagotzeko, 1.797,1 milioi pezetako kopuruarekin. Espedienteak ekainaren 29ko 655/93 Foru Aginduekin bukatzen da, kontratu-aldaketa eta 1.797,1 milioi jotzen duten 17 salneurri kontraesankor onartzen dituen, obra nagusiaren kontratatari esleitzen zaiolarik eta epea 10 hilabetez luzeagotzeko baimena emanez, 1993ko urriaren 16ra arte.

Aldaketa honi dagokionez zehaztu behar da kontratuaren burutze-epea 1992ko abenduaren 15ean bukatu zelarik, aldaketa honetako lehen jarduketa 1993ko maiatzaren 28koa dela.

Hau da, aldaketa hau I tartean egin zena bezalakoa da, burutze-epea bukatu eta sei hilabete beranduago onartu zena. Helburua da ordurako eginda zeuden lanak administrazioaren aldetik erregularizatzea. Gure aurreko txostenean egoera hau atzemanda genuen. Aldaketa honek esleipenaren salneurriaren ehuneko 34 egiten du.

Txosten teknikoaren arabera, egin diren obra-unitate berri hauek proiektuaren akatsak eta hutsuneetan oinarritzen dira.

C) Azken kitapena eta espedientearen erregularizazioa.

I tartean gertatu bezala, hemen gertatzen dena da behin-behineko harrera eta gero onartzen dela aldaketa bat, espedienteak arauzko bidean sarrazteko, eta aldaketa kontratazio-organok ez eta Nafarroako Gobernuak, Erabakiaren bidez, onartzen duelarik. Aldaketak 854,5 milioi pezeta jotzen du.

Aurreko aldaketak zioen kontratua 1993ko urriaren 16an bukatzen zela. Tarte honi 1994ko uztailaren 13an egiten zaio behin-behineko harrera.

Aldaketa honi buruzko lehenengo agiriak 1994ko abendukoak dira. Aldaketa 1995eko uztailaren 3an onartu zen behin-behineko harrera egin eta urtebete beranduago.

Gainera, aldaketak bederatzi hilabeteko epegehikuntza onartzen du (1993ko urriaren 16tik 1994ko uztailaren 16ra arte), beraz behin-behineko harrerako data ondoren erregularizatzen da.

Horrela eraginik gabe gelditzen da 655/93 Foru Aginduak ezartzen duen zatikako epe eta zehapen-araubidea, baita salneurrien berrazterketak ez ordaintzeko aukera, berez egiten ari zena epea ez zela betetzen aintzat hartu gabe. Hori guztia espedientearen ez delarik jasotzen kontratatari atzerapen honetan errurik ez duela baieztatzen duen Administrazioaren ebazpenik.

I tarteko aldaketan bezala, berbera dena, esan behar da agerikoa dela kasu honetan ez dela obra-kontratu batean gerta daitezkeen faseen hurrenkera kronologiko arrunta ematen. Ezin daiteke aldaketa bat onartu obra bukatua eta behin-behinean harrera eginda dagoenean. Hortik ondorio hauek:

- KFLko 56.3 artikulua dioena hautsi egin da, obran aldaketak gertatu direlarik kontratazio-organok bere baimena eman gabe.

- Ez zegoen aurrekontu-izendapenik. Aurrekontuaren izaera murriztailearekin ez da bete, aurrekontuaren betetzea desitxuratu delarik eta gastua ondorengo ekitaldietara pasatu delarik.

- Obrari epez kanpo egin zitzaion harrera eta zuzen burutua balitz bezala.

Laburbilduz, aldaketa honetako 854,4 milioi gehi aurrekoaren 1.791,1 milioi, hau da, 2.651,6 milioi guztira, esleipenaren ehuneko 51 egiten dutena, legezko jardunbideak ezartzen duena hautsiz egin da, eta aurrekontuaren betetzean erregistratu gabe obrak bukatu diren arte.

### VIII.2.3. II fasea.

Ganbararen aurreko txostenean (1992ko abenduaren 31n) fsae honetarako onarturiko aldatzarik ez zen jasotzen, eta Herrilan Zuzendaritzak bidalitako informazioan ere ez zen jasotzen fase honetarako onartu gabeko aldatzarik, nahiz eta aipatzen zen Parlamentuak onarturiko "Bi Ahizpen" tarteko aldaketa kontratazio-organoak onartu behar zuela.

Azterketa horren ondoren honako aldaketa hauek gertatu dira:

		Epearen aldaketa	Zenbatekoa, milioitan
7979/93 F.A.	Bidezorua aldatzeko lanak, aurreikusitako lanak eta Bi Ahizpak	15 hilabete	879,6
267/94 F.A.	Epearen luzeagotzea	6 hilabete	—
Guztira		21 hilabete	879,6

A) Bidezorua aldatzeko lanak, aurreikusitako lanak eta Bi Ahizpak

Aldaketa konplexua da, ondorengo kontusail handi hauetan laburbil daitekeena:

	Zenbatekoa milioitan
Zoladura aldatzea (erresistenteago jarri)	102,5
Proiektuan aurreikusten ez ziren lanak	401,4
"Bi Ahizpak" izeneko proiektua	375,6
Guztira	879,6

Aldaketa hau KFLko 16. artikulua ezartzen dituen betebeharreko baldintza guztiak betez bideratu da. 879,6 milioi jotzen duen gastu-gehi-kuntza onartzen du, eta horietatik 375,6 milioi "Bi Ahizpak" zeharkatzeko proiektuaren kostu-gehi-kuntza garbia finantzatzeko dute, Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordeak onartu zuena; 102,5 milioi bidezorua aldatzeko dira (ibilgailu astunei begira erresistenteagoa den bidezorua paratzeko) eta 401,4 milioi lan berriak finantzatzeko dituzte, proiektuan aurreikusten ez zirenak.

Obren bukaera teorikoaren ondoren bideraturik, epea 15 hilabete luzeagotzea onartzen du, 1993ko azaroaren 30era arte, horrela obren atzerapena erregularizatzen delarik.'

Hein bateko aldatetarako ere ezarri zituen a posteriori, baita ez-betetzearen ondoriozko zehapenak ere. Hori dela eta baldintza hori alferrikakoa da.

B) Burutzeko epea sei hilabete luzeagotzeko aldatzea.

Enpresak obra burutzeko aurreko aldatzea bukatzeko epea bukatu baino egun bat lehenago eskatu zuen, eta arrazoi klimatologikoak eman zituen.

KFLko 16. artikulua ezartzen dituen betebeharren arabera bideraturik, Zerbitzuak kontratua bukatu eta bi hilabete beranduago proposatu zuen. Epea sei hilabetez luzeagotzen du, 1994ko maiatzaren 31ra arte, eta orduan izenpetu zen behin-behineko harrera-akta, oraingo honetan obra bere osotasunean hartuz.

### VIII.2.4. III Fasea. I Tarte.

Aurreko txostena bukatu genuen egunean, (hau da, 1992ko abenduaren 31n) ez zegoen tarte honetan inolako aldatzarik onarturik.

Txosten hartan esaten zen ezen, Ganbarak hala eskaturik, Herrilan Zuzendaritza Nagusiak 1992ko urriaren 31n eginda zueden eta bideratzeko zain zeuden aldatetarako buruzko informazioa igorri zuela.

Tarte honetan aurreikusten zen 165,4 milioi pezeta guxtiagoko gastua izango zela kontrataren bidezko burutzean. Ganbarak azpimarratzen zuen kopuru hauek ez zirela logikoak, aintzat hartuz "fase honetan, proiektuaren akatsak eta hutsunak beste faseetan baino nabarmenagoak direla".

Gogorarazi behar da zuinketa-akta epea bukatu eta hiru hilabete beranduago izenpetu zela, bertan aipatzen zirelarik desjabetutako lursailtan

sartzeko arazoak, kokapena aldatu gabeko lerro elektriko eta telefonikoak, proiektuak egituretan, zerbitzu-gunetan eta abar zeuzkan hutsuneak eta akatsak, eta abar... baita lusailaren egiazko gora-beherak ez zetozeela bat planoetan agertzen zirenekin.

Beraz, Kontrata eta Administrazioaren artean trukutzen diren gutunetan askotan sartzen dira aldaketei eta salneurri kontraesankorrak eratzeari buruzko agiriak. 1992ko martxoan enpresak, esleitu den proiektuaren kalitate txarraz mintzo delarik, gogorarazten dio Administrazioari burutu diren edo burutzen ari diren eta aldaketaren batek ukitzen dituen obra-unitate guztiei buruzko dokumentazio guztia bidali diola, eta beraz, Administrazioak dagokion aldaketa prestatzeko beharrezkoak diren datu guztiak badituela.

Bada, aurrekoa den bezalakoa izanik, kontratua burutzen den bitartean ez da aldaketa bakar bat ere onartzen.

Hori horrela, espedientearen ondoren erregularizatu behar da, behin-behineko azken ziurtagiriarekin, gertakizunen zerrenda honen arabera:

1993ko urriaren 3an kontratuaren burutze epea bukatzen da, eta 1993ko azaroan 492,4 milioi jotzen duen kontratuaren aldaketa onartzea proposatzen da, epea 1994ko ekainaren 30era arte luzeagotzen delarik. Honen euskarria diren agiri anitzetan aldaketak deskribatzen dira, aldaketa hauen arrazoiak azaltzen dira eta garbi gelditzen da horietariko asko aurretik buruturik zeudela. ez da onartzen, aurrekontu-izendapenik ez zegoelako, antza.

- 1993ko abenduaren 17an autobia-tartea inauguratzen da eta zirkulaziora ireki (errodadurazko tarteko geruzarekin).

- Hilabetero segitzen da ziurtagiriak bidaltzen, esleipenaren aurrekontua gainditurik, arik eta 1994ko martxoan, obra-zuzendaritzak jakinarazten du gainditu egin dela esleipenaren aurrekontua 289 milioitan, eta beharrezkoa dela hornidura berezia erabiltzea kopuru hau ordaintzeko.

- 1994ko maiatzean kontratua luzeagotzeko espedientearen prestatzen da, 1994ko ekainaren 30era arte. Txosten-proposamenean atzerapena zurrizten da burutzean izan diren obra-gehikuntza-rengatik. Aldaketa ez da onartzen.

- 1994ko abenduaren 16an behin-behineko harrera-akta egiten da, epea bukatu eta 14 hilabete beranduago eta tartea zirkulaziora ireki eta 12 hilabete beranduago. Obrei behin-behineko harrera egiten zaie, osoro bukatu ez dauden arren, erabilera publikorako eman daitezkeela uste dela-

ko. Eraskin batean zehazten da zeintzuk diren oraindik burutu ezin izan daitezkeen obra-unitateak, batez ere zoladuren kapitulukoak direnak. Berariz esaten da atzerapena ezin zaiola enpresari egotzi. Bukatzear dauden unitateen burutze-epea ondoko tartea zerbitzuan jartzearen menean jartzen da, eta hortik aurrera bi hilabeteko epean burutu beharko da.

- 1995eko maiatzaren 5ean ondorengo tartea irekitzen da, eta beraz, aipatu bi hilabeteko epea 1995eko uztailaren 5ean bukatzen da.

- 1995eko azaroan behin-behineko kitapen-proposamena egiten da, eta legelarien zein kontuhartzailetzaren txostenen ondoren 1996ko martxoaren 25eko Nafarroako Gobernuaren Erabakiak onartu egiten du.

Erabaki honek, baita I faseko I eta II tartetean aztertu ditugunak ere, espedientearen erregularizatzen du eta lege-haustea "konpondu" nahi ditu, batez ere kontratazio-organoak onartu ez dituen aldaketen burutzea edo eta luzapena ez ematea zein bertan behera uztea. Beste tartetari bezala, ohiz kanpoko aldaketa honek, "a posteriori" egindakoak, lege-jardunbidearen haustura dakar.

- 1996ko martxoaren 29an Administrazioak eskatzen dio Cubiertas-i obrako akatsak konponetzea behin betiko harrera egiteko. Berau ez da espedientearen jasotzen.

**Ondorioz,** tartetari honetan, obra hasi baino lehenagotik, proiektuaren hutsuneak eta akatsak nabarmenak ziren, hainbeste non, guztiz uste izatekoa zen aldaketak izango zirela. Izan ere, aldaketa hauek obra burutzen den bitartean gauzatzen dira, onarpenik gabe bada ere. Kontratuaren bukaera teorikoa eta hilabete beranduago aldaketa bat bideratzen da, onartzen ez dena, dirudienez aurrekontu-izendapenik ez zegoelako. Tartea inauguratu eta zirkulaziora ireki eta gero, beste aldaketa bat proposatzen da, kasu honetan epe luzeagotzeko, eta hau ere ez da onartzen.

Behin-behineko harrera-akta zatikakoa egin eta hamabost hilabete beranduago Nafarroako Gobernuaren Erabaki batek espedientearen erregularizatzen ditu, izan diren lege-haustea "a posteriori" konponduz. Kasua I fasekoa bezalabezalako da, eta hortik ateratzen den salneurri-gehikuntza 421 milioi pezetakoa da.

### VIII.2.5. III Fasea. II Tartea.

Kontuen Ganbararen aurreko txostenean esaten zen tartetari honentzat 1992ko abenduaren 31n ez zegoela aldaketarik onarturik.

Esaten zen, halaber, onartu gabe egindako aldaketak bazirela, Herrilan Zuzendaritza Nagusiaren arabera 240,4 milioi edo joko luketenak, kontratatzen bidez burutuak. Ganbarak adierazten zuen kopuru horiek ez zirela logikoak, aintzat har-

tuz ezen III fasean "proiektuaren akatsak eta hutsuneak, itxuraz, beste faseetan baino nabarmenagoak baitira".

Aurreko txostenaren datatik aurrera ondoren aipatzen diren aldaketak izan dira:

		Epearen aldaketa	Zenbatekoa, milioitan
714/92 FA	aldaketa, doiketa teknikoarengatik	–	–
1302/93 FA	"hainbat" aldaketa, bidezorua ordeztzea ere barne	3 hilabete	1.282,2
96/03/25eko Erabakia		16,5 hilabete	592,2
Erabilera (hornidura berezia)		–	492,8
Guztira		19,5	2.367,2

#### A) Aldaketa, doiketa teknikoarengatik

Zuinketa-akta izenpetu eta eta ondorengo hila-betean kontratistak honako doiketa teknikoak proposatzen ditu:

- Sestrak berdintzea bi galtzadetan
- Urritzako tunela sasi-tunel moduan gauzatu.
- Zerbitzu-bidea zabalagotzea

Aldaketa honek ingurugiro txosten aldekoa izan zuen, ez zuen salneurri-gehikuntzarik ekarri eta KFLko 16. artikulua dioenaren arabera bideratu zen.

B) Hainbat aldaketa, bidezorua ordezkatzeko ere barne.

Aldaketa honek betetzen ditu, bere biderapean, 16. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak, eta ondoren aipatzen diren kapituluaren obra-gehikuntzak dakartza: egiturak, hormak, lurberdinketa, drenajea, segurtasun-hesia birjartzea eta seinaleztapena, Urritzako tunela eta bidezoru elkortuaren ordezkaria jartzea. Gehikuntza garbiak 1.282,2 milioi egiten du.

Kontuhartzaitzaren txostenak gaztigatzen du aldaketa honen arrazoia, gehienbat proiektuaren akatsak direla, zenbait kasutan aukerako burutzea hartu den ondorengo konpromezuen ondorioa da eta gutxi batzuetan obrak egitean izaten diren ohiko desbideraketek dagokie.

Gisa beretsuan ari da lege txostena, azpimarratzen duelarik, gainera, EKEko 145. artikulua ezartzen duenaren arabera erantzukizunak eskatzeko espedientea ireki daitekeela.

Aipatzen du, baita ere, aldaketetariko batzuk eginda daudela, 56.3 artikulua bete ez delarik, egin baitziren aurretik onartu gabe.

Onartzen duen Foru Agindua fidantza berregokitzera premiatzen du –aldaketak ehuneko 26ko gehikuntza dakar–, berme hori espedientean jasotzen ez delarik.

Ondorioz, kontratuaren aldaketa garrantzizkoa da, eta horren beharra, neurri handian, proiektuaren akatsek eta hutsuneek ekarri dute. Askotan erregularizatzen ditu iada eginda dauden obrak, KFLko 56.3 artikulua ezartzen duena hautsiz, salneurri kontraesankorrak onartuz. Epea ere gehiagotzen du, eman den kontratu-ez betetzea erregularizatuz, aldaketa kontratua bukatu eta bi hilabete beranduago onartzen baita.

Formaren aldetik, KFLko 16. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak betez bideratu da.

C) Kontratua "A posteriori" erregularizatzea (behin-behineko kitapenarekin)

Kontratuaren bukaera 1993ko abenduaren 31rako finkatua zelarrik, 1994ko maiatzean luzapen bat bideratzen baina onartzen ez delarik, hila-beteroko ziurtagiriak bidaltzen segitzen da. 1993ko abenduan Latasako dermionan lurjausi handia gertatzen da. 94ko ekainean Urritzako tuneleko pitzaduraren gaineko lehen txostenak idazten dira.

1994ko abuztuaren ziurtatu den zenbatekoak esleipena gehi aldaketengatik onartutako guztia gaintu du. Horregatik Administrazio ordezkatzeko duen teknikariak 1995eko martxoan ABPOetan aurreikusten den hornidura berezia erabiltzeko agindu zuen, 492,8 milioiokoa dena. Zenbateko hori zenbait obra-unitateri baizik ezin zaio aplikatu (indusketa, habe prefabrikatua, horma prefabrikatua, hormigoia, enkofratua eta altzairua).

ABPOak hornidura berezia 492,8 milioitan jartzen zuen, eta 38. eta 42. ziurtagirien artean agortu egiten dira.



Proiektuan zenbat diren zehaztea zaila izaki, seinalatzen diren obra-unitateei aplikatu behar zaie bakarrik, baina 38. eta 42. ziu-tagiriak alderatzen ditugunean ikusten ahal denez, ABPOetan aurreikusten zirenei (zuzenketa-neurriak, ingurugiro eragina, seinalaztapena, balizak jartzea eta itxiturak) ez eta beste hainbat obrari aplikatu zaio, praktikan aurrekontuaren gehigarria bezala erabili delarik.

Hornidura berezia arautzen duen KFLko 21.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, erabiltzeak badakar epea proportzionalki 2,8 hilabete (2 hilabete eta 24 egun) luzeagotzea, halako moldez non kontratuaren epea 1994ko martxoaren 25ean bukatuko baitzen.

Azken finean, kontratuaren burutzeak gainditu zituen bai salneurria eta baita epea ere. Auzia ebatzen da, aztertu diren gainontzeko tarteetan bezala, kontratua "a posteriori" aldatuz, espediente azken kitapenean erregularizatzen dela.

Ondorio hauetarako fase honetako bi tarteetako kitapen-espedienteak prestatzen dira "kitapenaren zenbatekoaren euskarri diren zerrenda baloratuen epigrafe bakoitza garbi eta bakandurik justifikatzeko era bakarria delako" (1994ko irailean). 1995eko maiatzean behin-behineko harrera-akta (zaticakoa) izenpetzen da.

Behin-behineko kitapen hau gatazkatsua izango zen, nonbait, zeren eta 1995eko ekainaren 30ean, eta kontseilariaren ekimenez, espedientearen arabera hala dirudi bederen, Elkargo ofizialak aukeratutako injinieru bati esleitzen baitzaio

laguntza teknikoko lan bat, "II obraren behin-behineko kitapenaren gaineko erreklamazioaren azterketa" (ikus XI.3 e). Ondoren, Laobea II kontratistak 1.705 milioi jotzen zuen aurretiko administrazio-erreklamazioa aurkeztu zuen, ebatzete dagoena, XIV.1 atalean ikusten ahal denez.

1995eko azaroaren 20an 7.310,9 milioi pezeta jotzen duen behin-behineko azken kitapena ematen da, eta horrekin batera salneurrian eta epean izan diren gaintzeak erregularizatzeko aldaketa bat. Dagokion espediente bideratzen da ondorio hauetarako, KFLko 16. artikulua ezartzen dituen betebeharreko baldintza guztiak betez, eta Nafarroako Gobernuaren 1996ko martxoaren 25eko Erabakiak ebatzen du espediente, 143 salneurri kontraesankor, 592,2 milioiko ordainketa –esleipenaren gainetiko ziu-tagiri-gehikuntza, aldaketak eta hornidura berezia erregularizatuz– eta 16,5 hilabeteko epearen gehikuntza onartuz, eta honekin behin-behineko harrera egiten den egunera artekoa erregularizatzen da.

Hemen beste tarteetako erregularizazioei buruz esan direnak dauden-daudenetan errepikatzen ahal dira.

### VIII.3. OBRAREN DESBIDERAPEN EKONOMIKOEN ETA BURUTZE EPEEN AZTERKETA.

#### VIII.3.1. Desbiderapen ekonomikoak.

Ondoren obraren desbiderapen ekonomikoen azterketa egingo dugu, fase eta tarte bakoitzean, baita obra berriarenak ere, horretarako ondorengo koadroaz baliatuko garelarik.

	Kontrataren aurrekontua	Esleipen- hartzaila	Esleipena	(bajaren 5 alta	Aldaketa	Esleipenaren g. aldaketaren %	Esleipena+ aldaketa	Hainbat kontzeptu	Ordainduta, guztira	Esleipena. g ordainduta.%
<b>I Fasea</b>										
I Tarte	3.674	Laobea	3.735	1,6	3.596,9	96	7.331,9	465,6	7.797,5	109
II Tarte	5.176	Cubiertas	5.190	0,2	3.797,2	73	8.987,2	660,1	9.647,3	86
I Fasea, guztira	8.850		8.925	0,8	7.394,1	83	16.319,1	1.125,7	17.444,8	95
<b>II Fasea</b>										
	<b>3.042</b>	<b>Huarte</b>	<b>3.100</b>	<b>1,9</b>	<b>879,6</b>	<b>28</b>	<b>3.979,6</b>	<b>553</b>	<b>4.532,6</b>	<b>46</b>
<b>III Fasea</b>										
I Tarte	4.792	Cubiertas	4.740	(1)	421	9	5.161	28,1	5.189,1	9
II Tarte	4.929	Laobea	4.943	0,2	2.367,2	48	7.310,2	163,1	7.473,3	51
III Fasea, guztira	9.721		9.683	(0,4)	2.788,2	29	12.471,2	191,2	12.662,4	31
Obra berria										
Leitzaran ibai gaineko zubia	901	Mariezurrena	736,4	(18)	82,2	11	818,6	9,1	827,7	12
Pagalletako magalak tinkoagotzea	99,8	Tesinsa	87,6	(12)	22,8	26	110,4	4,1	114,5	31
Obra berria, guztira	1.000,8		824	(17,6)	105	13	929	13,2	942,2	14
<b>Guztira</b>	<b>22.613,8</b>		<b>22.532</b>	<b>(0,3)</b>	<b>11.166,9</b>	<b>49,5</b>	<b>33.698,9</b>	<b>1.883,1</b>	<b>35.582</b>	<b>58</b>

Ikusten ahal denez, obren aldaketek ehuneko garrantzizkoa egiten dute esleipenaren gainean, batez ere I faseko I tarteetan, hor ehuneko 96 harrapatzen duelako, eta baita fase bereko II tarteetan ere, non ehuneko 73 harrapatzen baitu, eta beste muturrean III faseko I tarte dago, han aldaketek ehuneko 9 baizik ez baitute egiten.

Obra aldaketek ia desbiderapen ekonomiko guztiak bereganatzen dituzte, aurreko epigrafean aipatu dugunez fase eta tarte guztietan tramiterik gabe egin diren obra guztiak erregularizatzen dituen azken aldaketa baitago.

“Hainbat kontzeptu” zutabeak, hain zaila denez zehatz esatea sartzen diren kontzeptu guztiak, kopuru garbi bat biltzen du, ordainketa osoa betetzera; hornidura bereziaren erabilera, salneurrien berrikuskapena, BEZeko ezberdintasunak eta atxikiriko zerbitzuen bereiztea, 1.883,1 milioi guztira.

Azken zutabeak esleipenaren eta obren kostuaren arteko desbiderapen ekonomikoa biltzen du, eta ikusten ahal dugunez beronek portzentaia azpimarragarriak harrapatzen ditu, altuena I faseko I tarteak delarik, ehuneko 109, fase bereko II tarteak ondoren duela, ehuneko 86.

Azpimarratzekoa da III fasean desbiderapena ehuneko 9 dela I tarteetan eta ehuneko 51 II tarteetan, batez besteko desbiderapena ehuneko 31

delarik, hiru faseetan txikiena, eta hau bat dator aurreko txostenean egiten zen proiektuetako salneurrien azterketarekin. Han honako hau esaten zen:

- III faseko salneurrieak merkatuaren batez besteko maila baino ehuneko 25 altuagoak dira, gorabehera handiak daudelarik egitura eta drenajeen ehuneko 10 eta bidezorurako betunaren ehuneko 60 artean.

- III faseko salneurriak ehuneko 40 handiagoak dira I eta II faseetako salneurriak baino.

Obra berrietako batez besteko desbiderapena ehuneko 14koa da eta esleipenaren batez besteko baja kontrataren aurrekontuarekiko ehuneko 17,6 da.

Obren desbiderapen osoa ehuneko 58ra iristen da pasatu baita 22.532 milioi jotzen zuen hasierako esleipenetik 35.582 milioi jotzen duen osoko kostura.

### VIII.3.2. Burutze epeak.

Ondoren, koadro bat erakutsiko dugu, esleipenaren arabera obretako hasierako burutze epeak eta ondoren egindako aldaketen arabera gehikuntzak, fase eta tarte bakoitzean, nola obra berrian, obrei behin-behineko harrera egiten zaioneko eguna

	I Fasea		II Fasea	III Fasea		Leitzarango zubia	Pagalleteko magalak tink.
	I Tartea	II Tartea		I Tartea	II Tartea		
Esleipen epea	28 hilabete	28 hilabete	21 hilabete	29 hilabete	28 hilabete	7 hilabete	8 aste
Zuinketa berresteko akta	89/08/16	89/08/16	90/12/01	91/05/02	91/05/02	93/02/15	95/05/12
Esleipenaren arab. bukaera	91/12/17	91/12/17	92/09/01	93/10/03	93/09/02	93/09/16	95/07/13
Epea gehitzea; aldaketak	12 hilabete	12 hilabete	15 hilabete	9 hilabete	4 hilabete	3 hilabete	45 egun
	10 hilabete	10 hilabete	6 hilabete		16,5 hilabete	6 hilabete	
	9 hilabete	9 hilabete					
	31 hilabete	31 hilabete	21 hilabete	9 hilabete	20,5 hilabete	9 hilabete	45 egun
Kontratuaren bukaera (aldaketekin)	94/07/16	94/07/16	94/05/31	94/07/03	95/05/16	94/06/16	95/08/26
Behin-behineko harrera-akta	94/07/13	94/07/13	94/05/31	94/12/16	95/05/03	94/06/15	95/08/26
Egiazko burutzea, guztira	59 hilabete	59 hilabete	42 hilabete	43,5 hilabete	48 hilabete	16 hilabete	3,5 hilabete

Ikusten ahal denez, obrak burutzeko epea ia bikoiztu da fase eta tarte guztietan, hasieran jarrita zegoenarekin konparatzen badugu, eta denboraren aldetik dagoen bat ez etortze hau ondoren egiten diren aldaketen bidez erregularizatzen da, eta horrelaxe ikusi dugu obraren aldaketen atalean, I fasekoetan izan ezik.

Epean honelako desbiderapenik izan bada ere, administrazioak ez du inolako neurririk hartu.

Berme-epea behin-behineko harrera data eta urtebete beranduago bukatzen zen. Guk dakigularik, obraren behin-betiko harrera ez da egin, I fasekoak alde batera utzirik.

1995eko maiatzaren 5ean obra bere osotasunean zirkulaziora ireki zen ofizialki.

## IX. OBRA OSAGARRIA.

Ondoren erakutsiko dugu obra osagarriaren kontzeptu honek izan duen mugimendua aurreko txostena bukatu zen datatik (1992ko abenduaren 31) aurrera, milioi pezetatan.

	1992/12/31 baino lehenag. ordaink.	1992/12/31 baino berand. ordaink.	Guzt.
I Fasea			
I Tartea	129,8	80,9	210,7
II Tartea	13	36,6	49,6
II Fasea			
III Fasea			
I Tartea			
II Tartea			
Hiru faseak		36,9	36,9
Guztira	142,8	154,4	297,2

### IX.1. I FASEA. I TARTEA.

Obra nagusirako esleitu zen proiektuan sartzan ez ziren obra osagarriak dira, baina obra nagusiaren esleipenaren salneurriaren ehuneko 20 baino handiagoak direnez, obra nagusiaren kontratatari eskaintzen zaizkionak.

Larraungo sei herritako zoladura eta urbanizazioa da, eta espediente hau aurreko txostenean berraztertu zen, 129,8 milioi jotzen zuen lehen ziurtagiriarekin batera. Ondoren beste hiru ziurtagiri jaso dira, eta behin-behineko harrera-akta 1993ko apirilaren 27an izenpetu zen.

### IX.2. I FASEA. II TARTEA.

Aurreko tartean bezala, zenbait herritako zoladura da obra, obrek eta kontratista nagusiak egin behar dituen lanek ekartzen dituzten kalteak konpontzeko. 1992ko abenduaren 31tik aurrera 36,6 milioi jotzen duten ziurtagiriak jaso dira.

### IX.3. MARKESINAK ERAIKITZEA.

1108/95 Foru Aginduak, egunkarrietan iragarri eta gero eta hiru kontratatari eskaini eta gero, zortzi markesina eraikitzea zuzeneko kontratazioaz egiten da. Gastuak, osotara, 18,4 milioi egiten du, eta beste hainbat gastu ere badaude, 36,9 milioi-ko kopurura iritsi arte.

## X. ZERBITZUEN BERREZARPENA.

Ukitutako zerbitzuen berrezarpenak honela adieraz daiteke, aurreko txosteneko data eta horren ondorengo berrezarpenak bereiztuz:

	1992/12/31 baino lehenag. ordaink.	1992/12/31 baino berand. ordaink.	Guzt.
I Fasea	40,9	-	40,9
I Tarte	18,8	-	18,8
II Tarte	22,1	-	22,1
II Fasea	13,9	21,3	35,2
III Fasea	8,4	32,1	40,5
I Tarte	8,4	25,5	33,9
II Tarte	-	6,6	6,6
Guztira	63,2	53,4	116,6

### X.1. I FASEKO BERREZARPENAK.

Kontuen Ganbarako hasierako txostenean esaten da, lehenengo fase honi buruz: "ukitutako zerbitzuen berrezarpena hasierako eraikuntzako proiektuan sartzen da, eta obren kontratistei esleitzen zaie, nahiz eta ez zegoen zerbitzu haien berrezarpeneko behin betiko aurrekonturik edo proiektu teknikorik. Ondoren, aldatzeko espedientearen biderapenaren bitartez, kontratazio-organismoak bereiztu zuen zerbitzu hauen berrezarpena kontratutik, eta esleipen berria egin zuen zerbitzu hauen erantzule ziren enpresen izenena (CTNE, Fensa, eta abar...) kontrata burutzeko aurrekontuak hasieran onartutakoak ez eta oso bestelakoak zirelarik".

1992ko abenduaren 31z geroztik, ez da beste bereizkuntzarik I faseko tarte batean ere.

### X.2. ZERBITZU-BERREZARPENAK. II FASEA.

Fase honetako zuinketa-aktan ezartzen zen enpresa esleipen-hartzaileak egingo zituela behar ziren kanalizazioak (obra zibila).

Halaber, esaten zen Audenasak oraindik ez zituela erabaki autopistako "sos lerroak" eta fibra optikoa paratzeko tokiak.

Zuinketa-akta berresteraoan esleipen-hartzaileak egin zituen oharretan eskatzen dio Bide Zerbitzuari Fensa, Correos y Telégrafos eta CTNE tramita ditzan obrak ukitzen dituen eta proiektuan sarturik ez zeuden lerroen premiazko kentzea.

Horren arabera, uste izatekoa zen zerbitzuak birjartzeagatiko ordainketen zenbatekoa handia izango zela. Ganbararen aurreko txostenean bilzen zen goi-tentsioko eta behe-tentsioko lerro elektrikoaren aldaketa, 13,76 milioiko zenbatekoaz.

### Gainera, besta aldaketa hauek ere izan dira:

Enpresa	Aldaketa	Milioi pezetak
Iberdrola	13,2 kv-ko lerroa	1,96
Ctne	Larraun ibaiaren gaineko zubiko lerroak	1,11
Ctne	sos kablea	6,47
Ctne	Lerroak	1,38
Ctne	Zutoinen lerroak	2,45
Ctne	Gulina- Fibra optikoaren behin-behineko desbiderapena	6,33
Fensa	Irurtzun-Gulia hartuneagatiko eskubidea ordaintzea	0,14
Renfe	Goiko pasabidea eraikitze baimena	1,53
Guztira		21,37

Gastu hauetan guztietan bada aurrekontuaren onarpena, zerbitzuaren txosten teknikoa, kon-tuhartzailearen baimena eta ordainketa onartzen duen kontseilariaren foru agindua.

### X.3. III FASEKO BERREZARPENAK.

Aurreko txostenean esaten genuen ezen, I fasean ez bezala, ukitutako zerbitzuen berrezarpena ez zegoela sarturik kontratistari eginiko obra-esleipenean.

Aurreko lana itxi baino lehen, I tartean 8,4 milioi jotzen zuten berrezarpenak onartu ziren.

Ondoren, I tartean bereizkuntza berriak egiten dira. Berauek 25,5 milioi egiten dute eta CTNE eta Fensarentzat dira.

II tartean, aurreko txostena itxi zenean ez zen berrezarpenik, baina ondoren honako hauek gertatzen dira:

- 2,9 milioi jotzen duten CTNEk eginiko zerbitzu berrezarpena, berariz azaltzen delarik obra zibila kontratista nagusiak egingo duela.
- Iberdrola: Hartuneagatiko eskubidea ordaintzea eta Urritzako tunelaren kontratuagatiko gastuak, 0,6 milioi pezeta.
- Iberdrola: Irurtzun-Basaburua lerroa aldatzea, 3,1 milioi pezeta.

### XI. LAGUNTZA TEKNIKOA ETA OBRA-ZUZENDARITZA.

Ondoren aurkeztuko ditugu bi gastu hauen gorabeherak, bai aurreko txostena itxi baino lehen eta bai aurreko txostena itxi ondoren.

	Enpresa	Esleipena	1992/12/31 baino lehenag. ordaink.	1992/12/31 baino berand. ordaink.	Guztira	Esleipenaren g. desbiderapen %
I Fasea	Elsamex	298,2	487,3	396	883,3	196
II Fasea	I Cinco Tace	114,1	135,6	45,9	181,5	59
III Fasea	Elsamex	405,2	265,5	210,1	475,6	17
Leitzarango zubia		-	-	4,5	4,5	-
Autobia, osotasunean		-	-	0,9	0,8	-
Guztira		817,5	888,4	657,3	1.545,7	89

### XI.1. I FASEA.

Ganbararen aurreko txostenean, 298,2 milioi jotzen zuen eta Elsamex delakoari egiten zitzaion esleipenarekin batera, bi aldaketa hartzen ziren aintzat: bata, 59,6 milioikoa obra-zuzendaritza bera kontratatuz, ordura arte departamentuko teknikariek aurrera eramandakoa, eta bestea, 185,8 milioikoa, kontratuaren hasierako epea 12 hilabete luzeagotuz eta zundaketa zein proiektu berezietako kontusailak onartuz.

Gure azterketaren ondoren honako aldaketa hauek onartu dira:

a) Epe berria eta gastua handiagotzea 75,8 milioi pezetatan.

Aldaketa honen bidez, 1994ko abenduaren 5eko Foru Aginduak onartua, kontratuaren epea 1992ko abenduaren 31 arte handiagotzen da, eta gastua 75,8 milioietan gehiagotzen da, eta bere aplikazioa III faseraino hedatzen da, fase honetako hasierako kontratua iraungitzen delarik.

Espedientean I faseko obretako atalburuaren txosten bat dago, obrak 1994ko abenduaren 31n zeuden egoera azaltzen duena. Horrek erakusten du I fasean obrak 1994ko uztailaren 13an bukatu eta behin-behinean hartu zirela, hots, kontratuaren aldaketa hori baino lehen.

b) 12 hilabeteko epe luzeagotzea eta salneurriaren 189,1 milioi gehiagotzea dakartzan aldaketa.

969/93 Foru Aginduak epea hamabi hilabetez luzeagotzen du (1994ko otsailaren 28ra arte) eta salneurria 189,1 milioitan gehiagotzen da.

Espedientean ez da jaso Foru Agindua tramitatu denik. Azken ziurtagiria ere ez da jasotzen.

### XI.2. II FASEA.

Aurreko txostenean Icinco enpresari egin zitzaion eta 114,1 milioi jotzen zuen esleipena aztertu zen, hau da, enpresa horrek egindako obren kalitate-kontrola. Esleipen honek aldaketa

bat jasan du, KFLko 16. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat datorrena. Aldaketa honen edukia bikoitza da: gastua 25,5 milioi gehitzea onartzen du, ziurtagiriak ordaindu ahal izateko, hasierako aurrekontu-izendapena agorturik dagoelako. Eta, beste alde batetik, kontratuaren iraupenaren muga 1993ko abenduaren 31n jartzen du, eta kontratuaren gaia ere mugatzen du, orain "Bi Ahizpen" zintzurreko obrak baino izango ez direlarik. Hortaz, hasieran aurreikusitako hainbat unitate ezabatu egiten dira, eta lan hauek 9,17 milioirekin hornitzen dira.

Aurreko txostenean aztertu zen TACEri egin zitzaion esleipena, 24,5 milioi materialeen kalitatearen kontrola egiteko. Esleipen honek aldaketa bat izan du, eta aldaketak KFLko 16. artikulua ezartzen dituen baldintzak bete ditu, nahitaez egin behar den fidantzaren birdoitzea izan ezik, hau ez baita espedientean jasotzen.

Aldaketa hau "Bi Ahizpak pasabidearen doiketa tekniko" kontratua lotzen den obra-kontratuaren aldaketaren ondorioa eta paraleloa da, Nafarroako Parlamentuak onartu zuena.

Biderapena kontratuaren indarraldiaren barruan hasi bazen ere, biderapena eta onartzea atzerapenaz gertatu zen, beraz, praktikan, aurrekontu-izendapenik gabe eta kontratua iraungi eta gero egin den lan-ordainketa administratiboki arautzera dator, eta horretarako 6,6 milioi jotzen duen aurrekontu-gehikuntza eta epearen 11 hilabeteko luzeagotzea onartzen da.

### XI.3. III FASEA.

Kontratu hau apirilaren 23ko 308/91 Foru Aginduaren bidez esleitzen zaio Elsamex enpresari, 405,25 milioi pezetatan, eta epea aipatzen diren obrei behin-behineko harrera egiten zaien eguna gehi bi hilabetekoa da.

1992ko abenduaren 31ren ondoren, aurreko lana itxi genuen eguna, kontratuak honako aldaketa hauek eduki ditu:

## a) Mapa geoteknikoa eta zundaketak.

Aldaketa honen arrazoia da proiektuan aurreikusten dena baino kartografia orologiko zehatzagoa prestatu behar zela tinkoagotzeko neurrien nolakoa ezartzeko, "San Migeltxoko aldapa" izenez ezagutzen den ezegonkortasun geologikoa aintzat hartuz.

Aldaketak, KFLko 16. artikulua ezartzen duenaren arabera bideratu dena eta otsailaren 24ko 112/93 Foru Aginduaren bidez onartu zena, 16,3 milioi pezetako aurrekontu-gehiagotzea ekarri du, epeak lehengoan segitzen duelarik.

## b) Kontratua luzeagotzea eta BEZ tipoa aldatzeagatik gastu gehikuntza

Obrek nahikoa atzerapena dakartenez hasierako aurreikuspenarekin alderaturik, obra-zuzendaritza eta laguntza teknikoko lanekin segitzea beharrezkoa da, obren burutzeak dirauen bitartean gutxienik. Epea hiru hilabete luzeagotzen da. Era berean, BEZ tipoa aldatu direnez, "kontratuaren baliabide ekonomikoak murriztu egin dira, kontratuaren gaitik kanpoko arrazoiak direla eta, hortaz murriztapenak beste jotzen duen kopurua hornitu beharko da."

Aldaketa honen biderapenak KFLko 16. artikulua ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu. Espedientean ez da jaso onarpenaren Foru Aginduak berak agintzen duen fidantzaren doitzea.

Foru aginduaren bidez onartzen da, eta 42,24 milioi jotzen duen aurrekontu gehikuntza dakar; gehikuntza honek epea hiru hilabetez luzeagotzen dela eta BEZ tipoen aldaketa doitu behar dela -6,8 milioi- hartzen du aintzat, eta honek guztiak 49,05 milioi egiten du.

## c) Laguntza teknikoak. Kontratatik III faseko II tarteko kontratuaren behin-behineko kitapenari buruz egin duen erreklamazioaren gaineko azterketa teknikoak.

Kontseilariak 1995eko ekainaren 30ean esleitu zuen kontratu hau (ikus VIII.2.5c atala).

Obren behin-behineko kitapenaren ondorioz, kontratatik (Laobea 2) erreklamazio ekonomiko garrantzizkoa aurkeztu du, eta honi buruzko iritziekin ez datoz bat kanpoko obra-zuzendaritza (Elsamex) eta Administrazioaren koordinazio taldeko injinerua, eta horregatik beharrezkoa jotzen da Administrazioarekin zerikusirik ez duen teknikari batek azter dezan. Honetarako, kontseilariak Bide Injineruen Elkargora jo zuen, elkargoko kide bat izenda dezan eta esan dezan, lana esleitzeko, zeintzuk diren ordaindu beharreko ordainsariak.

Elkargoak injinineru bat izendatzen du eta ordainsariek 928.000 pezeta jotzen dutela adierazten du. Lana salneurri eta epearen barruan burutzen da eta ondorioak Administrazioaren tesien aldekoak dira.

**Ondorioz**, hiru tarteetako laguntza teknikoak eta obra-zuzendaritza obren burutze-epeen arabera esleitzen dira.

Hiru faseen eraikuntzan ematen den atzerapean bere oihartzuna du laguntza tekniko eta obra-zuzendaritzari buruzko kontratu hauetan, 1.545,7 milioiko guztizko gastua ekarriz. Esleipenak 817,5 milioi jotzen zuela ikusirik, harekiko desbiderapena ehuneko 89 dela ikusten da. Desbiderapena garrantzizkoa da, batez ere, I tartean, han hasierako esleipenak 298,2 milioi jotzen baitu eta azkenean gastuak 883,3 milioi egiten duelako, hau da, desbiderapena ehuneko 196 da.

Obra-zuzendaritza eta laguntza teknikoak kanpoan kontratatzen dira, administrazioak baliabiderik ez duela ikusirik, eta obren kontrol eta zuzendaritza hobea lortuko direlakoan. Alabaina, aurkitzen duguna da zerbitzu hauek kontratatzeak, 1.545 milioi pezeta gastatzea ekarri duena, ez duela halaber ekarri obraren kontrol egokia, obrak bai epean nola salneurrian desbiderapen handiak izan dituelako. Desbiderapen hauen onuradunak, gainera, zerbitzu hauen esleipen-hartzaileak diren enpresak dira, euren kontratuek gorantz egin duten ber.

Beste alde batetik, azken urte hauetan behin eta berriz aurrera eramaten den praktika hau ekartzen ari da hurrenez hurreneko administrazioaren desteknifikazioa, ikuspegi teknikitik eta gastu-mailaren ikuspegitik kritikoa den alorrean.

**XII. SEGURTASUN GASTUAK.**

1992ko abenduaren 31n segurtasun eta gastu anitzagatik kontratuek 4.407,8 milioi egiten zuten, autobioiak aurreko txostenean esaten zenez.

Gastuen xehetasuna honako hau da:

	Milioi pezetak
Segurisa	3.095,2
Segurisa	129,6
Prosesa	477,7
Visena	289,2
Ordainketak Goardia Zibilar	333,2
Ordainketak Foruzaintzari (bazkariak)	2,7
<b>Guztira</b>	<b>4.407,8</b>

Segurtasun-enpresekin zeuden kontratuak iraungita zeuden aurreko txostena egin zenean.

1993 urtean 102 milioi jotzen duten gastuak agertzen dira. Honela azaltzen dira gastu hauek: 7,6 milioi modulo prefabrikatu bat alokatzeagatik, 0,7 milioi hainbat gastu txikirengatik eta gainerakoa, 93,9 milioi pezeta, Goardia Zibilaren destakamenduak sorrarazitako gastuak.

Gastu hauen jatorria aurreko Autobiari buruzko txostenean sakonki aztertu zen. Bertan esaten genuen ordainketa hauek Nafarroako Gobernuaren 89/11/23ko erabakiaren eta berau berresten duten erabakien babesean egiten zirela, eta erabaki horiek, legearen ikuspegitik, eza daudela egoki justifikaturik. Ordainketa hauek justifikaturik egongo ziratekeen bi administrazioen arteko lankidetzaz hitzarmen bat ezarri izan balitz, baina halakorik dagoenik espedientean ez da jaso.

Beraz, segurtasun gastuek, guztira, 4.510,6 milioi egiten dute, eta horietatik 1.907,6 milioi Gobernu Zentraletik berreskuratzen dira, Nafarroako Administrazioak egindako negoziazioen arabera, eta Nafarroak Estatuari ordaintzen dion kupotik deskontatzen dira.

1994 urteaz geroztik ez da segurtasun gasturik.

### XIII. OBREN INGURUGIRO ERAGINAREN JARRAIPENA.

Natura Babesteko Zerbitzuko eta Bide Zerbitzuko arduradunek informatzen dutenez, obrazuzendaritzak biologo bat kontratatu zuen Iparraldeko Autobiaren obren ingurugiro jarraipena egiteko, 1993ko martxotik 1995eko maiatzera

bitartean, asteko bost egunez lan honetan ziharduena. Bi urte hauetan zehar Natura Babesteko Zerbitzuan jarraipen horren oroit-idazkiak aurkeztu ziren, eta sortuz joan ziren obra aldaketak bereizirik eta bere ingurugiro balorazioarekin bideratu ziren, baita birlandatzeko proiektuaren egokitzea ere.

1995eko maiatzaren autobioiako inaugurazioaren ondoren, jarraipena eta kontrola Bide Zerbitzuko Ingurugiroa Zaintzeko Atalera pasatu zen.

Egun horretatik, Atal horretako teknikarien eta Natur Ingurunea Kudeatzeko Ataleko teknikarien arteko aldizkako bilerak egin ziren, Ingurugiro Eraginaren Aitorpenean aurreikusten zena betetzen ote zen baieztatzeko, baita zuzentzeko neurrien eraginkortasuna ere. Bere aldetik, Ingurugiro Zaintzeko Atalak hasieran egin ziren birlandatzak hobetzeko proiektuak egin ditu, eta gaur egun Larraun ibaiaren egoera bere osotasunean eta modu koordinatuan jarraitzen ari da, obrek ukitu dituzten tarteetan ubidearen berreskurapena burutzeko.

### XIV. GORABEHERAK ETA ONDORENGO GASTUAK.

#### XIV.1. GORABEHERAK.

Obrak bukatu eta gero, eraikitzaileek zenbait errekurtso paratu dituzte, eta txostena bukatzen ari garen unean ebazteke daude; alabaina, etorkizunean ebazpen hauek autobioaren kostua gehiagotu dezakete. Herrilan Departamentuko Idazkaritza Teknikoak eta Gobernuaren Aholkularitza Juridikoak emandakoa argibideen arabera, honako hauek dira:

Ebazpena					Milioika pezeta
I Fasea	I Tarte	Laobea II	Ohiko errekurtsua	Korrituak	18
I Fasea	II Tarte	Cubiertas	Ohiko errekurtsua	Prezioen berrikuspena	49,1
I Fasea	II Tarte	Cubiertas	Ohiko errekurtsua	Korrituak	6,3
III Fasea	I Tarte	Cubiertas	Administrazioarekikoa	Azken kitapena	649,9
III Fasea	I Tarte	Cubiertas	Administrazioarekikoa	Korrituak	60,6
III Fasea	II Tarte	Laobea II	Ohiko errekurtsua	Korrituak	53,7
III Fasea	II Tarte	Laobea II	Ohiko errekurtsua	Urritzako Tun. berrezarp.	207,3
III Fasea	II Tarte	Laobea II	Aurret. Adm. Erreklamazioa	Prezioen berrikuspena	50,2
III Fasea	II Tarte	Laobea II	Aurret. Adm. Erreklamazioa	Azken kitapena	1.705,2
Desjabetzapenen gaineko erreklamazioak					90,5
Guztira					2.890,8

## XIV.2. Ondorengo gastuak.

Gure lana itxi eta gero Herrilan Departamentuan gastu berriak gertatu dira:

	milioi pezetak
Desjabetzapenak	0,2
Cubiertas Mzov enpresari atzerapen-korrituak	19,5
Pagalletako tunela konpontzeagatik Laobeari	1,6
Autobia loreztatzeko Viveros y Repoblaciones-i	9,4
Uren bidezko eraiteagatik Viveros y Repoblaciones-i	8,3
Loreztatzeko lanarengatik Viveros y Repoblaciones-i	24,7
<b>Guztira</b>	<b>63,7</b>

Obra hauek, normalean, errepide handi guztietan egiten dira, eta etorkizunean ere egiten segitu beharko da, baina uste dugu gastu hauek, Autobiaren guztizko kostua aldarazteko nahiko munta ez dutenak, ustiapen eta mantenimendu-gastu arruntzat har daitezkeela.

Beste alde batetik, tuneletan arazoak sortzen ari dira, eta arazo hauen ondorioz konpondu behar diren lurjausiak gertatzen ari dira. Herrilan Departamentuak berriki agindu du azterketa tekniko bat behar diren konponketak zeintzuk diren analizatzeko. Hauen kostua eta zergatiak gertatu diren zerbitzu juridikoek aztertu beharko dute kontratistari egozten ahal ote zaizkion zehazteko.

Iruñean, 1997ko otsailaren 14a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

**ERASKINA. AURKIBIDE KRONOLOGIKOA. KONTUEN GANBARAK AURREKO TXOSTENA JAULKI DUENETIK AURRERA LEITZARANGO AUTOBIAN GERTATU DIRENEN LABURPENA.**

- 1993ko otsailaren 25a. Herrilan kontseilariak, Lopez Borderías jaunak, Parlamentuko Herrilan Batzordearekin obrei eginiko bisita batean, iragaritzen du Autobiako Nafarroako tarteko 28 kilometroak 1993 urtearen azken aldera bukatuko direla. Egun haietan obraren guztizko kostuak 27.500 milioi joko zuela espero zen.

- 1993ko abuztuaren 10a. Herrilan kontseilariak, Lopez Borderías jaunak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioko eta Nafarroako Merkataritza

eta Industri Ganbarako lehendakariekin obrei eginiko bisita batean, Iparraldeko Autobia 1994ko lehen hiruhilekoan irekiko dela iragartzen du, eta behin betiko kostuak 33.500 milioi joko duela.

- 1993ko abenduaren 16. Autobia zirkulaziorako irekitzen da, Bi Ahizpen pasabidean. Egun hauetan kalkulatu da Gipuzkoako tartea ez dela 1995eko maiatzera arte bukatuko. Gipuzkoako Foru Diputazioak autobian bidesaria paratzea nahi du, eta Foru Gobernuak ez du onatzen hartzen nahi hori, obraren hitzarmenaren nolakoa bestelakotzea izango zelakoan.

- 1994ko maiatzaren 4a. Herrilan kontseilariak Bozeramaleen Batzarraren aurrean egiten du agerraldia, lehenagoko Gobernuak hasitako obra publikoen kontratazioan erabili zen sistemaren berri emateko.

- 1994ko maiatzaren 11. Herrilan zuzendari nagusiak eta Bide Zerbitzuko zuzendariak Dibilgaziozko Jardunaldi Teknikoen sarrera-ekitaldian parte hartzen dute Iparraldeko Autobiaren erai-kuntzaren berri emateko. Biek adierazten dute Autobiaren kostuaren gorakada mehatxu terroristen ondorioa dela. Jardunaldietan baieztatzen da autobiaren kostuak 33.000 milioi joko duela, hau da 1.178 milioi pezeta kilometro bakoitzeko.

- 1994ko maiatzaren 31. Herrilan Departamentuko kontseilaria dagokion Parlamentuko Batzordearen aurrean agertzen da, Iparraldeko Autobiaren obrak une hartan nola zeuden azaltzeko.

Agerraldian kontseilariak adierazten du Lata-sako lubiziek 534 milioi gehiagoko gastua ekarri zutela eta Pagallean 1.384 milioi gehiago gastatu zirela hormak zimentatzeko eta ezpondak tinkoagotzeko.

Halaber, Iparraldeko Autobiako Nafarroako tartea ekainaren bukaera aldera izango dela adierazi zuen. Kontseilariak kalkulatu du obrak 37.000 milioi baliko duela.

- 1994ko uztailaren 1a. Azpikontratisten makinak Gorritiko tunela moztzen dute protestatzeko eta salatzeke Cubiertas y Mzov enpresa kontratistak ia 500 milioi pezeta ez dizkiela ordaindu. Nafarroako autobiaren tarterik handienaren inaugurazioa udaren bukaera arte atzeratzen da.

- 1994ko azaroaren 7a. Lata-sako autobiaren tarteko irekitzea atzeratzen da Urritzako sasituneletan arazoak badirelako. Egun jakinik gabe atzeratu ere.

- 1994ko azaroaren 18a. Herrilan kontseilaria den José Ignacio López Borderías jaunaren agerraldia, dagokion batzordearen aurrean, Urritzako



tuneletan sortu diren arazoek berri emateko. Irekiztea udaberrira arte atzeratuko dela iragarri eta gero, kontseilariak ziurtatzen du arazo honek ez dituela kostuak handiagotuko.

Herrilan Departamentuko arduradunak errepikatatu egiten du Urritzako tuneletako arazoek ekarriko dituzten gaitzesak obra burutu dutenek bereganatu beharko dutela.

• 1994ko abenduaren 2a. Parlamentuak uko egiten dio Herrilan Departamentuari 4.017 milioi pezeta jotzen zuen kreditu osagarria. Berau Leitzarango Autobiarekin zerikusirik zuten ordainketei aurre egiteko zen.

1995eko maiatzaren 5a. Iparraldeko Autobia inauguratu eta bere osotasunean zirkulaziora irekitzen da, hau da, Irurtzundik Andoainera doazen 44,7 kilometroak.

## **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 21ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera.
- II. Helburua. Norainokoa eta mugak.
- III. Kontratazio prozesuaren oinarritzko zehaztasunen deskribapena.
- IV. Ondorioak.

#### **I. SARRERA.**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak hala eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaleen Batzarrak, 1996ko azaroaren 25ean egindako bilkuran hurrengo erabakia hartu zuen: Nafarroako Kontuen Ganbarari eskatzea fiskalizazio-txostena eman zezala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzea UTE Miyogo, SL-Rialca, SLri esleitu eta gero esleipena deusezteari buruz,

esleipena 1996ko irailaren 2an eta deusezteia urte bereko irailaren 30ean gertatu zirelarik.

Eskariaren ondorioz, Kontuen Ganbarak honako txosten hau paratu du. Edonola ere, aurretik argitu behar da kontratuak -356 milioi pezeta ingurutan esleitu baitzen- indarrean dirauela egun, gero iruzkinduko dugun legez.

#### **II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.**

Egindako eskariarekin bat, fiskalizazio-lanaren helburua izan da:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) zentroetako arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratua esleitu eta burutzeko prozesua arautegi orokarrarekin eta haren garapena arautzen duen berezi edo partikularrekin bat datorrela egiaztatzea.

Aurreko helburua erdiesteko, Kontuen Ganbara honek onetsi eta haren kontu-ikuskatzailtzaren prozedurei buruzko gidan sartuta dauden kontratuak fiskalizatzeko programak erabili dira.

Gure jarduketa honetan eragina izan dute aztertu dugun kontratazio-espeditatearen nolokotasunak, batez ere, denborazko iraupena eta aurkeztu diren errekurtso eta alegazioak. Beste alde batetik, jarduketa publiko jakin batzuen kontra errekurtso kontentzioso-administratiboa jartzeko epea ez da bukatu oraindik.

Landa-lana 1997ko urtarrila-otsailen egin du kontu-ikuskatzailtza teknikariak eta kontu-ikuskatzailtzaileak osaturiko talde batek, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen etengabeko lankidetzarekin.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

### III. KONTRATAZIO PROZESUAREN OINARRIZKO ZEHAZTASUNEN DESKRIKAPENA.

Atal honetan laburbildu ditugu aztertutako kontratazio prozesu guztian eragina izan duten gertaerarik behinenak, eta esleipen fasea eta zerbitzua emateari buruzkoa bereizi ditugu.

Aurrekoak garatu baino lehen, esan beharra dago 1989tik aitzina, kontratuaren xedea enpresa batek egiten zuela, Indusal Navarra, SAK, hain zuzen, eta O-NOZen izena zeraman arropak, aipatu enpresarenak, esleipendun berriak erosiko dituela dagokion ordainaren truke.

#### III.1. ESLEIPEN FASEA.

- O-NOZeko arropak alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratazioa egiteko prozesua 1995eko irailaren 18an hasi zen formalki, Nafarroako Gobernuak horretarako baimena eman eta hasierako kopurua urteko 421 milioitan jarri zuenean. Erabaki horri eusteko txostena, hala ere, 1995eko uztailera da.

- 1995eko azaroan, O-NOZeko Zuzendari Kudeatzailearen txostenaren bitartez, gastua onartu zen eta kontratazio espedienteari ekin zitzaion, lehiaketa publikoa erabili zelarik.

- 1995eko abenduaren 31n bukatu zen aurretik zegoen kontratua, kontratu berria izenpetu arte luzatuko den arren -1996ko abuztuaren 26a-.

- Eskaintzak aurkezteko epea bukatu zenean, 1996ko urtarrilaren 4an, hiru jaso ziren. Kontratazio mahaiak, bildu ondoren, erabaki zuen Kontratazio Batzarrari kontsulta egitea -eta ondorioz, kontratazio prozesua geldiaraztea-, UTE batek aurkezturiko proposamenean, enpresetako batek -aurreko esleipendunari zegokiona, hain zuzen- iraungitako enpresari-sailkapena zeramalako, beste enpresak sailkapen nahikoa eskaini arren.

- 1996ko otsailaren 21ean erantzun zuen Batzarrak, aurreko eskaintza onartu behar ez dela esanez, enpresari-sailkapenarena ez betetzeagatik. Era berean, Mahaiak erabaki zuen lehiaketa esleitzeko batzorde teknikoa osatzea.

- Bi errekurtsio paratu zituzten erabakion aurka; esleipen prozesua gelditzeari buruzkoa, bata, eta aurreko UTEa kanpoan uzteari buruzkoa, bestea. Errekurtsio biak ebatzita daude, egitez, lehena, prozesuari berriro ekin zaiolako eta bigarrena onartu ez dutelako.

- 1996ko maiatzaren 6an esleitu zitzaion kontratua lisatzea UTE Miyogo, SL-Rialca, SLri, 356 milioi ingurutan eta urteko kopuruaren ehuneko 20 egiten duen fidantza jarri da, antza denez "kontratuaren osotasunari aurre egiteko bideragarritasun tekniko eta finantzieroari buruzko kezka larria zegoelako, are gehiago eskaintako prezioak kontutan hartuz gero".

- Esleipendunak, 1996ko maiatzaren 21ean errekurritu zuen aipatu fidantza eta hura kalkulatzeke modua, eta Nafarroako Gobernuak haren aldeko ebatzia hartu 1996ko uztailaren 22an, zerbitzuak 1996ko ekitaldian izango zuen benetako kostuaren ehuneko 4ko fidantza ezarri. Era berean, zerbitzuak urte hartako abuztuaren 31n hasi behar zuela erabaki zen.

- Abuztuaren 26an izenpetu zuten zerbitzua emateko zegokion kontratua. Haren baldintza eta zegozkion pleguetatik hurrengoak aterako ditugu, txostenaren helburuarekin bat:

- a) Kontratuak 1996ko irailaren 1ean hartu zuen indarra.

- b) 1996ko abenduaren 31ko 24ak arte dirau.

- c) Alderdiak bat etorriz gero, luzatu egin daiteke, urte naturaletan, Legeak baimentzen duen muga gainditu gabe (1999ko abenduaren 31).

- d) Kontratu "deuseztu egingo da bi aldeetako batek beren beregi uko egiten badio, abisua hiru hilabete aurretik emate hutsarekin, bai lehen aldian, bai luzapenetan".

- e) 1996ko irailaren 2an izenpetu zuten aurreko esleipendunak -Indusalek- eta esleipendun berriak -Miyogo/Rialca- arropa markatua berriz erosteko kontratua, baldintza teknikoan orriek ziotenaren arabera, O-NOZen aurrean.

- f) 1996ko irailaren 11n, Indusalek errekurtsioa aurkeztu zion Gobernuari, formaren aldetiko hutsak eta baldintza-orrietako alde jakin batzuk bete ez direla salatuz, eta jarduketa hasteko erabakiaren deusezetasuna, eta ondorioz, Miyogo-Rialcarekin izenpeturiko kontratuarena, eskatuz. Gobernuak, 1997ko urtarrilaren 13an errekurtsioa ez onartzeko erabakia hartu zuen.

#### III.2. ZERBITZUA EMATEKO FASEA.

- Indusalen eta Miyogo-Rialcaren zenbait idazki ageri da espedientean, O-NOZi salatuz beste aldeak ez duela bete arropa berriz erosteko kontratua -arroparen kantitate eta kalitatearen aldetik-. Horren ondorioz, O-NOZek zenbait kopuru atxiki ditu oraingo esleipendunarengandik, aurreko esleipendunak hala eskatuta.

- Espedientean badira 1996ko irailaren amaiera aldeko hainbat txosten, unitate ezberdinek emanak, esleipendun berriak emandako zerbitzua balioetsiz, O-NOZeko zerbitzu nagusiek hala eskatuta. Haiak irakurri eta ezin da ahobateko irizirik atera, gehienak kontratua 1997an luzatzearen alde agertzen badira ere.

- 1996ko irailaren 30ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Gobernu Kontseiluko buruak –Nafarroako Gobernu Kontseilariari baitagokio–, NOZeko Zuzendari Kudeatzaile ezean –gero izendatu baitzuten–, idatziz jakinarazi zion esleipendunari kontratua bertan behera uzteko asmoa, ezarritako epearen barruan, kontratu-harremana 1996ko abenduaren 31n bukatuko zelarik, hortaz.

- 1996ko urriaren 22an, esleipendunak errekurritu egin zuen aurreko erabakia, erabat deuseza zelako aldarrikapena lortzeko asmotan –administrazio egintzaren arrazoirik eza eta O-NOZeko Gobernu Kontseiluko buruak kontratua bertan behera uzteko eskumenik ez zuela argudiatuz, funtsean–, edota, hala ez bazan, hauxe lortzeko: deuseztea, antolamendu juridikoa hausteagatik, botere-desbideraketarengatik, helburua lortzeko forma-betebeharrak ez izateagatik edo interesatuen defentsa-gabeziagatik.

- Nafarroako Gobernuak, 1996ko abenduaren 16an, erabaki zuen esleipendunak aurkeztu errekurtsioa onartzea, argudiatuz kontratua bertan behera uzteko eskumena O-NOZeko zuzendari-kudeatzaileari dagokiola, eta ez Kontseiluko buruari, errekurtsioaren gainerako oinarriak beharrezko ez zirelarik. Ondorioz, indarrik gabe geratu zen irailaren 30eko jakinarazpena, eta kontratua beste ekitaldi bat luzatuko dela ulertzen da.

Hori zela eta, 1997ko otsailaren 7ko ebazpenaz, O-NOZeko zuzendari-kudeatzaileak luzatu egin zuen O-NOZen menpeko zentroetako arropa alokatu, garbitu eta lisatzeko zerbitzua.

#### IV. ONDORIOAK.

Hurrengo kontsiderazio eta ondorioak azpimarratuko ditugu egindako lanetik:

**1.-** O-NOZek bere zentroetako arropa alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratua esleitzeko kontratazio-prozedura, bat dator izaera hori duten prestazioak erregulatzen dituen arautegiarekin.

**2.-** Organoaren eskumenik eza alde batera utziz gero, O-NOZek kontratua bertan behera uzteko zuen asmoa, kontratua arautzeko baldintza administratiboek ezarritakoa zorrotz begiratzu gauzatu zen. Hori bai, 1996ko abuztuaren 26an

izenpetu zen kontratua –urte bereko irailaren 1ean indarrean sartu zena– ekitaldi bereko irailaren 30ean bertan behera uzteak desegoki edo lekuz kanpoko eman dezake, are gehiago hori egiteko arrazoi nahikorik agertzen ez bada espedientean.

**3.-** Kontratazioak hartu duen denbora luzea azpimarratuko dugu, 1995eko irailaren 18an hasi baitzen formalki eta esleipena ez baitzen 1996ko abuztura arte gauzatu. Ia-ia urte bete, alegia. Epe luze horrek ekarri du:

- Prozesuaren halako ziurtasun-gabezia juridiko bat, eskaintza egin zutenetako bik, funtsean, aurkeztu dituzten errekurtsio, kexu eta alegazioetan isladatua.

- Ematen duten zerbitzuaren kalitaterik eza, aurreko esleipendunari kontratua luzatu egin baitzaitzaion, baina jarraitzeko aukerarik gabe, ordea.

- Giza baliabide publiko ugari erabili behar izana prozesuaren jarraipena egiteko.

**4.-** Administrazioari gogoratu behar zaio, kontratazio prozedura orotan burutzen duen jarduera orok behar dituela izan dokumentuzko euskarria eta eustazpi juridiko eta tekniko sendoak. Hori guztia, izaera horretako kontratu batek berarekin dakartzan atezu eta harreman zailen kaltetan gabe, bai merkatuan diren enpresen artean, bai enpresen eta Administrazioaren artean ere.

**5.-** Azkenik, Kontuen Ganbara honek eskatzen die O-NOZeko zerbitzuei eta gainerako Administrazio Publikoari hurrengoak gogoan hartu eta oldozpena egiteko:

- Aztertu dugun zerbitzua kontratatzeko prozesuan erabili den epearen luzearen justifikazioa eta arrazoizkotasuna. Hor aipatuko ditugu prozesua garatzeko azpifase bakoitzean erabili den denbora:

a) 1995eko uztailetik 1996ko urtarrilaren 4ra, aurreko administrazio-izapideak.

b) 1996ko maiatzaren 4tik 6ra, esleipen prozedura, zehatz esanda.

c) 1996ko maiatzaren 6tik urte bereko abuztuaren 26ra, kontratua izenpetzeko.

- Laguntza prestazioaren barruan, izaera eta garrantzi horretako zerbitzua -ospitale nagusietako arropa hartzen du- hornitzaile bakarrari uzteko egokitasuna.

- Esleipendun berriak aurreko esleipendunari arropa markatua erosteko beharri eustea, izan ere, antzeman diren azken arazoak -erabakitzeke oraindik- horren ondorio baitira.

• Esleipendunari inbertsio handia eskatzen dioten kontratuen gehienezko iraupena lau urte izatea. Epea luzatzeari egoki irizten bazaio, kontratuei buruzko foru lege berrian sar daiteke, beren beregi.

Iruñean, 1997ko apirilaren 17a

Lehendakaria. Francisco Javier Tuñón San Martín

## **Tuterako Osasun Barrutiko mantenimendu orokorreko kontratuaren burutzearen gaineko fiskalizazio txostena (1995-1996), Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 21ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Tuterako Osasun Barrutiko mantenimendu orokorreko kontratuaren burutzearen gaineko fiskalizazio txostena (1995-1996) argitaratu dadila egintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko apirilaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Tuterako Osasun Barrutiko mantenimendu orokorreko kontratuaren burutzearen gaineko fiskalizazio txostena (1995-1996), Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera.
- II. Helburua eta norainokoa.
- III. Kontratuaren oinarritzko zehaztasunen deskribapena.
- IV. Ondorioak.

#### **I. SARRERA.**

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak hala eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Bozaramaleen Batzarrak, 1997ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran hurrengo erabakia hartu zuen: Nafarroako Kontuen Ganbarari eskatzea fiskalizazio-txostena eman zezala Tuterako Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu orokorraren kontratuaren burutzearen gainean (1995-1996), Huguet de Mantenimiento enpresari esleitu baizitzaion.

Kontratuaren xedea denez Tuterako Osasun Barruti osoaren mantenimendu orokorra –hau da, bai Reina Sofia Ospitalea, bai barruti hartan sartzen diren osasun zentroak–, eskariaren xedea

aipatu kontratuaren garapen osoari dagokiola jodugu.

#### **II. HELBURUA ETA NORAINOKOA.**

Egindako eskariarekin bat, fiskalizazio-lanaren helburua izan da:

Tuterako Osasun Barrutia-Tuterako Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu orokorraren kontratuaren 1995 eta 1996 urteetako burutzea arautegi orokarrarekin eta haren garapena arautzen duen berezi edo partikularrarekin bat datorrela egiaztatzea.

Aurreko helburua erdiesteko, Kontuen Ganbara honek onetsi eta haren kontu-ikuskatzailetza-prozedurei buruzko gidan sartuta dauden kontratuak fiskalizatzeko programak erabili dira, kontratuen burutzeari dagokionean. Era berean, esleipendunak aurkeztu duen ordain-agiriteri ugarria eta Tuterako Osasun Barrutiko mantenimendu arloak ezarri duen barne-kontrol prozedura aztertu dira.

Landa-lana 1997ko otsailean egin du kontu-ikuskatzailetza teknikariak eta kontu-ikuskatzaileak osaturiko talde batek, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan etengabeko lankidetzarekin.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko, batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

#### **III. KONTRATUAREN OINARRIZKO ZEHAZTASUNEN DESKRIBAPENA.**

1995eko urtarrilaren 26an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak Tuterako Osasun Barrutiaren mantenimendu orokorra esleitu zion Huguet, S.L. enpresari.

Prestazio arautzen duten kontratua eta orrien baitan, eta Parlamentuak egin eskariaren ondorio-etarako, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

**1.-** Kontratatu den lanak Tuterako Osasun Barruti osoa hartzen du, hau da, bai Reina Sofía Ospitalea, bai hurrengo osasun zentroak:

- Tuterako ekialdekoa.
- Tuterako mendebaldekoa
- Buñuel
- Cascante
- Cintruénigo
- Corella
- Valtierra

Era berean, Tuteran dagoen eraikuntza bat ere sartu da.

**2.-** Kontratuaren helburuak hauxe aipatzen du: "kontratuak hartzen dituen elementu, ekipo eta instalazioak egoera onean eta funtzionamendurik egokienean iraunaraztea". Funtsean, aurrea hartzeko eta konpontzeko mantenimendua hartzen du eta lan osagarriak ere (igeltserotza, arotzia, hondakinak, araztegia...).

**3.-** Aurrea hartzeko mantenimendua Barrutiko mantenimendu atalak ezarritako programaren arabera egiten da; konpontzekoa eta gainerako lanak, erizaintzako gainbegiraleek eta mantenimendu buruak eskatutakoaren arabera.

**4.-** 14 lagunek osaturiko taldeak burutzen ditu lanok -arduraduna, 12 ofizial eta peoia-. Langile horiekin ospitaleko txanda guztiak betetzen dira, eta honela banatzen:

- Lanegunetan, goizeko txandan lau lagun daude, arratsaldean hiru eta gauean, bat.
- Larunbat eta jaiegunetan, goizeko eta arratsaldeko txandan bina, eta gauean bat.
- Osasun zentroetarako langile finko bat dago goizeko txandan.

**5.-** Hurrengoak sartzeko dira, besteak beste, aurkeztu den proposamen ekonomikoan:

- Eskainitako zerbitzuaren prezioa, baita hileroko kostua ere (esku-lana, materialak, gastu orokorrak, industri mozkina,...)

- Aparteko orduetan, gauetan eta jaietan egindako lanaren prezioa.

- Egindako kilometroaren kostua, pezetatan.

- Eskainitako plantilako langileak gehitzeak ekarriko lukeen gainerako kostua.

**6.-** Aurrez ikusitako mantenimenduaren zerbitzuaren ordainketa hileroko ordainagirien arabera egingo da, esleipen-kopuruaren hamabirenaren arabera. Ordainketa hori egin baino lehen, Barrutiko mantenimendu-arduradunari aurkeztu behar zaizkio kontratuaren barruko langileen gizarte-aseguruen likidazioak.

Era berean, hileroko eta independenteki fakturatzeko dira osasun zentroetarako joan-etorrietan ibilitako kilometroak.

Kontratuz kanpo egindako lanak, independenteki fakturatuko dira, esku-lana eskaintza ekonomikoan zetorren kopuruaren arabera zenbatuko delarik, eta materialeak, aurkeztutako emate-agerien arabera.

Ustegabeko lanak, enpresa berari esleitzen bazaizkio, behintzat, bi aldeek aurrez erabakitako balioen arabera zenbatetsiko dira.

**7.-** Kontratua luzatzea erabakiz gero, Nafarroako Gobernuak aplikatu indizearen arabera egokituko dira eskainitako prezioak. Ehuneko 4,3ko eguneratzea aplikatu zen 1996rako.

**8.-** 1995 eta 1996an, Huguet de Mantenimientto, S.L. enpresak 115.328.649 pta. fakturatu eta jaso zituen. Hona banaketa:

1995ean: 50.243.638 pta. (10 hilabete baino ez)

1996an: 65.085.011 pta.

Ekonomi eta Finantza-kudeaketa sistemaren (SGEF) kontabilitate irizpideei jarraituz gero, horra banaketa:

Urteak	Kontratua	Kilometroak	Konponketa	Inbertsioak	Guztira
1995	46.063.768	418.728	1.412.590	2.348.552	50.243.638
1996	57.653.413	625.760	1.017.890	5.787.948	65.085.011
Guztira	103.717.181	1.044.488	2.430.480	8.136.500	115.328.649

Laburbilduz, lau harreman-mota nagusi dago Barrutiaren eta mantenimendu enpresaren artean:

a) Mantenimendu eragiketetatik eratorriak, zehazki, hilerio fakturatzekoak –hamabirena–, eskaintza ekonomikoan agertzen diren prezioen arabera.

b) Osasun zentroetarako joan-etorrietan ibilitako kilometroak. Hau ere hilerio fakturatzeko da eta eskaintzan ageri da zenbatekoa.

c) Mantenimendu kontratuan beren beregi aurreikusten ez diren lanak edo, zerbitzua dela eta, ospitalean jarduketa gutxi dagoenean egin behar direnak edo premia berezia dutenak. Independenteki fakturatuak dira eta eskaintzan agertzen diren esku-lanaren prezioaren arabera.

Aurreko atalean agertzen diren lanek justifikatzeko, esleipendunak ordainagiria ematen du, mantenimendu buruaren oniritziarekin; zenbatekoa 250.000 pta. baino gehiago bada, barrutiko kontuhartzailearen eta administrazio-zuzendariaren izenpea ere behar dira. Orokorrean, ez da lan-agindu edo parterik ageri.

d) Aztertzen ari garen kontratuarekin zerikusirik ez duten lanak. Osasun arloak eskuarki erabiltzen dituen prozeduren bidez esleitzen diren hainbat jarduketetan dautza, zenbatekoa 500.000 pta. baino gehiago bada, beste eskaintza batzuekin leihan, orokorrean. 500.000 pta. baino gutxiago bada, ordain-agiria eranstean zaio kontabilitate dokumentuari –eskaria ahozkoa izan ohi da–; gehiago bada, aurrekontua eta esleipen-ebazpena eranstean dira.

Azkenik, Ospitalearen eta osasun zentroen mantenimenduaren ardurak Mantenimendu eta Zerbitzu Orokorretako Atalari dagokiola aipatu behar da. Buruak eta administrariak osatzen dute. Mantenimendu ia guztia, hala ere, kanpoan kon-

trataturiko zerbitzuek egiten dute, aipatu langileek, beraz, aztertu eta ikuskatu egiten dituzte birkontratariko jarduketak (jardineria, ikuzketa, mantenimendu orokorra, mantenimendu elektromedikoa, eta abar).

#### IV. ONDORIOAK.

Ondoren jarriko ditugu egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak:

1.- Ondorio orokor gisa esan dezakegu kontratuaren burutzea bat datorrela, orokorrean, bai kontratuak, bai kontraprestazioa arautzen duten orri administratibo eta teknikoek ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

2.- Esleipendunak egin dituen lan guztiek dagokien ordain-agiria dute euskarri, beti ere Osasun Barrutiko mantenimendu buruaren onespenerekin. Kontratuaz ari diren ordain-agirietan egiaztatu ahal izan dugu erabilitako prezioak bat datozela hori erregulatzeko arauak ezarritakoekin.

3.- Mantenimendu-jardun ohikotik at egindako lanen ordain-agiriak bat datoz esleipendunaren proposamen ekonomikoak ezarritako prezioekin.

4.- Hala ere, Ganbara honek uste du mantenimendu arloaren barne kontrola indartu egin beharko litzatekeela eta dokumentazioan hurrengoak sartu: egindako lana egiaztatzeko aginduak eta parteak, egokitasuna bere osotasunean egiaztatu ahal izateko.

Neurriok ezartzeak administrazio-lana handitzea ekar dezake, noski, jarraipen eta kontrol ego-kia egiteko asmoz.

Iruñean, 1997ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--